

**2016-2020ko eskola
inklusiboaren eta kultura
artekoaren eremuan ikasle
etorkinei hezkuntza-arreta
emateko II. Plana**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Sarrera

1. kapitulua

2016-2012ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana egin baino lehenagoko hausnarketak

- 1.1. Ikasle etorkinei arreta emateko aurreko programa eta planak
- 1.2. 2012-2015eko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko I. planaren ebaluazioa
 - 1.2.1. Balorazio orokorra
 - 1.2.2. Helburuak eta gauzatu diren 2012-2015eko Planaren jarduerak
- 1.3. EAEn eta euskal hezkuntza-sisteman biztanle etorkinei buruzko datu estatistikoak

2. kapitulua

2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana

- 2.1. 2016-2020ko Plana egiteko hausnarketak
- 2.2. 2016-2020ko Plana eragin duten balio eta printzipioak
- 2.3. Planaren helburu orokorra
- 2.4. Esku hartzeko esparruak:
 - Araudiaren esparrua eta informazioa eta komunikazioa
 - Planifikazioa
 - Hezkuntza-berriztapena
- 2.5. Planaren ardatz estrategikoak
- 2.6. Ardatz estrategiko bakoitzaren helburu espezifikoak
- 2.7. Jarduera-ildoak eta adierazleak
- 2.8. Planaren jarraipena egiteko eta berrikusteko batzordea
- 2.9. Kronograma



SARRERA

Euskal gizartea etengabe aldatzen ari da. Biztanleen zati handi batek beste herrialde batzuetara –Amerikara batez ere- migratu zuen aro batzuetatik, Penintsula Iberiar guztitik iristen zitzaizkigun etorkin batzuen harrera herrialde bihurtu garen beste batzuetara pasa gara. XXI. mende honen hasieran ikus dezakegunez, migratze mugimenduek jarraitzen dute eta bost kontinenteetatik etorritako biztanleak hartzen ditugu. Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiko “Immigrazioari Begirada” (2016ko abuztua) txostenaren azken datuen arabera, jatorri atzerritarreko biztanleak EAEko guztizko biztanleriaren % 8,6 dira. 2012an aurreko Plana diseinatu zen (Ikaste etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa, eskola-eredu inklusibo eta kultura artekoaren barruan, 2012-2015), eta oraingo datuak urte horretako datuekin alderatuta % 0,2 igo dira. 2012tik hona jatorri atzerritarreko biztanleen ehunekoa gutxitu egin da Araban, non % 10,9tik % 10,4ra pasatu den; mantendu egin da Bizkaian (% 8) eta igo egin da Gipuzkoan, non % 7,9tik % 8,8ra pasatu den.

Errealitate berri honek gure ikastetxeetan ere badu isla: mundu osotik datozen ikasleak -hiru mila baino gehiago ikasturtea hasi ondoren- iristen zaizkigu orain, hizkuntza eta kultura anitzekin, hezkuntza ibilbide eta eredu desberdinekin, beren idiosinkrasiarekin. Eskola egokitu egin behar da hain aldakorra den errealitate horri erantzun hoberena emateko eta lanean jarraitu behar du eredu inklusiboaren barruan ikasle guzti-guztien hezkuntza-arrakasta bermatzeko.

Maila sozialean egoera konplexua eta delikatua dugu eta hori oso erronka garrantzitsua da hezkuntza sistemarentzat. Ikasle berriak behar bezala eskolatu behar dira, curriculumaren hizkuntzak ikasi behar dituzte eta, gainera, euskal gizartean eta gero eta globalagoa eta kultura anizkunagoa den mundu batean bizitzeko beharko dituzten kultura arteko konpetentziak garatu beharko dituzte.


Asko izan dira, eskola inklusibo bat sustatzeko eta aniztasunari tratamendu egokia emateko, azken hamarkadan hartu diren neurriak. Azken hiru ikasturteetan Heziberri 2020 Planaren barruan etengabe landu da helburu hori, hezkuntza- eta pedagogia-eredua eta EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Plana garatuz. Hartu diren neurriek gauzatzeko denboraldi handiagoa behar dute, behar diren ondorioak eragin ditzaten, eta, halaber, orain arte emandako urrats guztiak finkatuko dituzten beste ekimen batzuen bidez osatu behar dira. Gainera, hezkuntzan egin beharreko esku-hartzeak beste eremu instituzional eta sozial batzuetan egiten diren jarduera multzo baten atala izan behar du, ikasle guztien ikasteko prozesua zabalduko eta lagunduko duen kultura arteko bizikidetzaz ahalbidetzeko.



Arrazoi horiengatik guztiengatik, eta Eusko Legebiltzarrak behin eta berriz azaldu duen kezka jabetzen garenez, ikasle etorkinei eman beharreko arreta dela-eta dagoen planifikazioa berrikusi eta birdiseinatu behar dela uste dugu, egindako bidetik abiatuta praktika inklusiboak finkatu eta osatu behar dira, gure ikasle guztiak hezkuntza-aukera berdinak izan ditzaten eta euskal gizarteko kide diren pertsona guztiak aukera eta giza aberastasuna, kulturala eta soziala transmititzen dituztela ikus dezaten.

CRISTINA URIARTE TOLEDO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua



1. kapitulua

2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan, ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. plana egin baino lehenagoko hausnarketak

1.1. IKASLE ETORKINEI ARRETA EMATEKO AURREKO PLAN ETA PROGRAMAK

Beste plan bat egiteko lanari ekin aurretik, ikasle etorkinei eman beharreko hezkuntza-arretari eta ikasle horien inklusioari buruzko aurreko programak eta planak identifikatzea komeni da.

2003-2004ko ikasturtetik aurrera ikasle etorkinen kopurua gure hezkuntza-sisteman areagotu zen heinean, programa espezifikoak egin ziren 2003-2007ko eta 2007-2010eko aldietarako eta, 2012-2015eko azken aldirako, plan gisako agiri bat egituratu zen.

1. "Ikasle etorkinei arreta emateko 2003-2007ko programa".

Immigrazioko I. Euskal Planean kokatuta, haren helburu orokorra ikasle etorkin guztiak eskolan integratzea lortzea zen, haien hizkuntza, kultura, gizarte-maila eta jatorria zein zen alde batera utzita sozialki eta kulturalki integratzeko erraztasunak emanez. Helburu orokor hori hiru helburu espezifikotan zehazten zen:

1. EAEko bi hizkuntza ofizialak ahoz eta idatziz menderatzea
2. Gainontzeko ikasleen curriculumak eskuratzea
3. Eskola- eta gizarte-eremuan apur-apurka gero eta autonomia pertsonal handiagoa lortzea

Bi ikuskarik, Berritzeguneko aholkulari batek eta arlo horretan aditutzat jotako irakasle batek hartu zuten hasierako erredakzioan parte.



2. **"Kultura artekotasunerako eta ikasle etorri berrien inklusiorako 2007-2010eko programa"**. Plan hau aurrekoa ebaluatu ondoren sortu zen eta Immigrazioko II. Euskal Planea kokatu zen. Hiru helburutan egituratzen zen eta, helburu horien bidez, jarduera desberdinak sartzen ziren:

1. Berdintasuna, elkartasuna eta kultur aniztasunarekiko begirunea oinarri dituen kultura arteko hezkuntza sustatzea.
2. Ikasle etorri berrien eskola- eta gizarte-inklusioa sustatzea, behar bezalako harrera eta integrazioa bermatuz eta edozein diskriminazio mota saihestuz.
3. Ikasle etorri berrien eskola-arrakastarako erraztasunak ematea, gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ikasiz, euskara ikasteari, batez ere, indarra emanez eta hizkuntza horrekiko jarrera positiboak sustatuz familien artean.

Bi ikuskarik, Berritzeguneko hiru aholkularik eta Harrera Plana egiteaz arduratzen zen ikasketa-lizentziadun batek parte hartzen zuten batzorde batek bere gain hartu zuen zirriborroa egitearen ardura. Geroago, arlo horretako adituek, Saileko beste unitate batzuetan, berrikusi zuten agiria eta hezkuntzaren eremuko erakunde, elkarte eta kolektiboen artean banatu zen. Geroago, programari buruz hausnarketa egin eta eztabaidatzeko jardunaldi bat antolatu zen.

3. **"2012-2015eko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko plana"**. Hezkuntza-kultura, politika eta praktikei kultura arteko ikuspegi bat ematea izan zen plan honetan zehaztu zuen helburu orokorra. Berori lortzeko, hiru helburu espezifiko planteatu ziren:

1. Kultura arteko ikuspegia ikastetxeetan indartzea, irakasleei prestakuntza eta aholkularitza emateko prozesuen eta eskola-antolaketan ikuspegi horrekin bat datozen ekimen berritzaileen bidez.
2. Araudia, programak eta jarduteko protokoloak gaurkotu eta egokitzea, ikasle guztiak era inklusiboan eskolatzeko aukera emango duten irizpideei kasu eginez.
3. Baliabide espezifikoaren eraginkortasuna eta koordinazioa hobetzea, aniztasun handiko testuinguruetan lan egiteak planteatzen duen erronka dela-eta ikastetxeen planteamenduak hobetzeko.

Berritzegune Nagusiko kultura artekotasunaren arduradunak koordinatutako batzorde batek egin zuen oinarrizko dokumentua eta ISEI-IVEIko espezialista batek, ikuskari batek, Eskolatzeko Batzordeetako bi teknikaririk eta Berritzeguneko aholkulari batek hartu zuten batzorde horretan parte.

Adituek eta Saileko beste unitate batzuek azken plana baloratu ondoren, planean jasota agertzen diren helburuen ebaluazioan sakondu da agiri honetan, 2016-2020ko plan berria erredaktatzeko elementu operatiboak izateko.



1.2. 2012-2015eko ESKOLA INKLUSIBOAREN ETA KULTURA ARTEKOAREN EREMUAN, IKASLE ETORKINEI HEZKUNTZA ARRETA EMATEKO I. PLANAREN EBALUAZIOA

1.2.1. Balorazio orokorra

Jarraipen Batzordeak 2014-2015eko ikasturtean ebaluatu zuen, 2012-2015eko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan, ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko plana. Bi ebaluazio-saio egin ziren. Batzorde Teknikoak egindako txostenean, alde batetik, asmo handiko plan bat zela azpimarratu zen; bestetik, helburuetako batzuei beste programa batzuetatik ere erantzun partziala ematen zitzaizela esan zen.

Hausnarketa horiek eginda, eta gizarte- eta eskola-egoerak asko aldatzen direla ikusita, etengabe analisia egitea eta egoera berrietara egokituko diren hezkuntza-erantzunak ematea beharko dituzten gaietan sakontzean jarraitzea ezinbestekoa dela uste dugu. Horregatik, aldi honetan hobekuntza-jarduerak, batzuk planean jasota agertzen ziren eta beste batzuk ez, proposatu eta gauzatu dira eta, jarduera horien bidez, 2012-2015eko plana gauzatzeko aldiaren sortutako premia desberdinei erantzuna ematen saiatu da. Gainera [Heziberri 2020 Planaren](#) barruan [FAEko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana](#) (2016-2020) landu da eta bertan neurri ugari agertzen dira ikastetxeek gai horri era globalago batean ekitea ahalbidetzeko.

1.2.2. 2012-2015eko Planaren helburuak eta egindako jarduerak

1. helburua: *ikastetxeetan kultura arteko ikuspegia indartzea, irakasleei prestakuntza eta aholkularitza emateko prozesuen eta eskola-antolaketan ikuspegi horrekin bat datozen ekimen berritzaileen bidez*

1.1. HELBURUA *Ikastetxe mailako proiektu globalak sustatzea, kultura arteko ikuspegiak zipriztindutako esku-hartze bat hezkuntzan egin ahal izateko*

Badira prestakuntza- eta berriztapen-proiektuetan kultura arteko ikuspegia garatu duten zenbait ekintza. Kultura artekotasuna funtsezko ardatza da ikasleen oinarrizko gaitasunak gauzatzeko orduan eta, horregatik, prestakuntza-deialdi desberdinetan agertzen da: *ikaskuntza kooperatiboa, ikaskuntza-erkidegoak, Eskola Txikiak, Amara Berri, Hezkidetza, etab ...*

Halaber, 2014-2015eko ikasturtean sortutako [Hamaika Esku programaren](#) ikastetxe-sarearen lehentasunetako bat da; izan ere, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 53 ikastetxe publikok osatzen dute Hamaika Eskuren sare hori eta aurreko ikasturteetan



eskola-errendimendu txikia izan duten gizarte-egoera ahuleko ikasleak (ijitoen etnia, etorkinen familien ehuneko handia, baliabide gutxi dituzten familiak...) eskolatzen ditu. Hamaika Esku programako ikastetxeetan landu eta lantzen jarraitzen duten esku hartzeko ildoen artean, besteak beste, familien eta beste eragile batzuen parte-hartzea, inplikazioa eta lankidetzak aipatzeko modukoa da; horren bidez etorri berriak gizarte- eta eskola-testuinguruan sartu eta integratzea lortu nahi dira. Egoerari buruzko haien diagnostikoetan, programako ikastetxeek eremu horri ematen diote lehentasuna.

Bestalde, badira haien urteko proiektu eta planetan auzoan integratzera zuzendutako jarduerak sartu dituzten ikastetxeak, *Ikas Komunitateak* sarekoak, esate baterako.

Horiek horrela, *Hamaika Esku*, *Ikas Komunitateak*, *Amara Berri*, *Kalitatea Hezkuntzan edo Partekatuz Ikasi* kultura arteko ikuspegia sarean lantzeko aukera bat dira une honetan.

1.2. HELBURUA Ikastetxearen agiri instituzionaletan (IHP, ICP, Urteko Plana ...) kultura arteko ikuspegia sartzea

Kultur aniztasunak eskola- eta gizarte-bizitzan gero eta garrantzi handiagoa duela kontuan hartuta, ikasle guztien artean elkarrekin bizitzeko gaitasuna garatzeko jarduerak sartu dira, *Heziberri 2020 Planaren* barruan ikastetxeen agiri instituzionalak (Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, ...) berrikusteko prozesuan. Gaitasun hori zeharkako oinarritzko gaitasuna da eta elkarbizitzaren kultura arteko alderdiak landu behar ditu derrigorrean.

Kultura arteko ikuspegiak ikastetxeen *hobekuntza-planetan* ere egon behar du. Ikastetxe bakoitzak, diagnostiko-ebaluazioetan eta haien ebaluazio eta diagnostikoetan lortutako emaitzak aztertu ondoren ateratako ondorioen arabera, egiten ditu plan horiek. Ildo horretan, 2013ko diagnostiko-ebaluazioari buruzko analisi global bat eman zuen ISEI-IVEIk argitara, eta analisi horretan, ikasle autoktonoen eta ez autoktonoen emaitzen arteko desberdintasuna agertzen da.

Ikasle etorkinen emaitzak eskasagoak direla egia den arren, urtez urte alde hori gero eta txikiagoa da. Halaber, alde horiek gero eta txikiagoak dira familien maila sozioekonomiko eta kulturalaren emaitzetan: ia desagertu dira Gaztelanian eta gaitasun matematikoan eta 12 puntukoa besterik ez dira Lehen Hezkuntzako 4.ean euskaraz komunikatzeko gaitasunean (2013).

Ikastetxearen *Elkarbizitza Planak* arreta espezifikoak ematen dio arrazakeriaren kontrako balioetan oinarritutako hezkuntzari eta gerta daitezkeen xenofobiaren kasuak prebenitu eta antzemateko jarduerak sartzen ditu, baita kultura arteko balio etikoak garatzeko aukera emango dieten tresnak ikasleei eskaintzeko ere.



Beste agiri orokor batzuek, Eskola Jazarpenaren Gida berriak eta "Elkarrekin Bonoak" programak esate baterako, ere kultura arteko ikuspegia lantzen dute eta haien planak garatzeko orduan ematen diete ikastetxeei orientabidea. Halaber, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Behatoki Espainoletik sustatutako proiektu europarra den "Frida II. *arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia gelan: eskola-elkarbizitza hobetzeko proposamenak*" mintegian parte hartzeak gai honi buruzko ikuspegi globalago eta partekatuagoa ematen du.

Ikastetxeetan aniztasunari arreta emateko planak eta norbanako jardura planak, jarraipen pertsonalizatuagoa exijitzen duten programetan parte hartzen duten ikasleekin, gaurkotzeko hobekuntza-jarduerak proposatu ditu Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak (Berritzegune Nagusiak).

"EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planean" (2016-2020) ere jasota agertzen dira ikasle etorri berrien ibilbideen jarraipena egiteko neurriak. Hamaika Esku programaren ikastetxeetan lantzen diren esku hartzeko ildoen artean, aipatzeko modukoa da ikasleei arreta emateari eta haien jarraipena egiteari buruzkoa; izan ere, lehen mailako hobekuntza-faktoretzat jotzen da hezkuntza-bikaintasunari buruzko ikerketa guztietan (EAEko balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriari eta praktika onei buruzko ikerketa, ISEI-IVEIk egindakoa).

1.3. HELBURUA Kultur arteko hezkuntzaren printzipioei eta hezkuntza horrek eskola-esparru desberdinetan dituen ondorioei buruz zuzendaritza- eta irakasle-taldeei aholkularitza ematea

Aurreko ikasturteetan, Hizkuntza Indartzeko irakasleak eta kultura arteko dinamizatzaileak bezalako pertsona espezifikoak ziren, funtsean, prestakuntza eta konpromisoaren ardatzak. Kultur aniztasunari eman beharreko arreta eta kultura artekotasuna ikastetxeetako zuzendaritzen prestakuntzan sartzeko aukera aztertzen ari da. Hamaika Esku programan ikastetxe horietako zuzendaritzekin lan-saioak egiteko aukera jasota agertzen da.

Zonalde mailako berritzeguneei ikastaroak eskaintzen jarraitzen dute - Hizkuntza Indartzeko Programako pertsonal berriari batez ere-, eta haietako batzuetan mintegi espezifikoak dituzte: hizkuntza indartzeari, kultura artekotasunari, hizkuntza tratamenduko moduluei (hizkuntzak curriculum-edukien bidez) buruzkoak. Gainera, sareren bateko *Hamaika Esku* eta *Ikas Komunitateak* batez ere,- barne prestakuntzan praktika inklusiboari eta kultura artekoari buruzko prestakuntza espezifikoa antolatu da. Zehatzago esanda, Hamaika Esku programan ikastetxeak berak antzemandako premiei oso lotuta dagoen prestakuntza lortu nahi da. Horiek horrela, jarraipena egin zaien ikastetxeen % 90ek helburuak lortzeko lagungarri izan dela adierazten du. Halaber, "Prest Gara"ren eskaintzak, ikuspegi inklusiboarekin eta kultura artekoarekin zerikusia duenak, egonkor jarraitzen du.



1.4. HELBURUA Gelako irakasleen jarduerari laguntza ematea, ikasle guztien eskola-arrakasta lortzera bideratutako jarduera eraginkorrek aurrera eramateko orduan

Ikasle berriek ahozko eta idatzizko hizkuntza ikasteko materialak egokitu eta egiteko prozesua sustatzea da aurreko puntuan aipatutako ikastaro eta mintegiaren helburu nagusia. Izan ere, curriculumera sartzeko tresna nagusia da hizkuntza eta berori menperatzeak, neurri handi batean, ikasle horien eskola-arrakasta errazten du.

Gainera, berritzeguneen aholkularitza- eta prestakuntza-sarea (Berritzegune Nagusia eta zonalde mailako berritzeguneak) marko inklusiboarekin eta kultura artekoarekin bat datorren gelako estrategia desberdinei buruzko proposamen bat ari da lantzen. Hamaika Esku programarako, aholkularitzek eta erreferentzia-ikuskariek orientabide batzuk dituzte, ikastetxeetan lantzen diren esku-hartzearen ildoak aurrera eramateko.

Hedatzeko mapa orokorrago batean, ari izan da unibertsitate-esparruarekin (Maisutzako "Minor" Vitoria-Gasteizko UPV/EHU eta Mondragon Unibertsitatean) lankidetzan eta, Sailaren jarduera-ildoak eta gelako ohiko testuinguruei lotutako esperientzia berritzaile eta arrakastatsuak ezagutarazteko, Ikuspegik eta Biltzen-ek antolatutako jardunaldietan parte hartu da.

1.5. HELBURUA Irakasle-taldeek familiekin duten esku-hartzeari laguntzea, informazio- eta aholkularitza-prozesuak hobetuz eta familien prestakuntza eta parte-hartzea bultzatuz

Familien parte-hartzea hobetzeko gakoenetakotzat jotzen da eta, beraz, hezkuntza-sistemaren funtsezko helburua eta sare desberdinetan sustatzen diren programetan lehentasunezko estrategia pedagogikoetako bat da. Hamaika Esku programako ikastetxeetan, familien parte-hartzeari, inplikazioari eta lankidetzari lotutako esku-hartzearen ildo nabarmenetako bat da.

Horiek horrela, "EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko 2016-2020ko Planean" familien prestakuntza eta parte-hartzerako proposatutako neurrien oinarriak finkatzeko asmoz, ikasturte honetan gurasoen elkarteei diru-laguntzak emateko agindua aldatu da, diru laguntzen ehuneko bat prestakuntza-jardueretan erabil dadin.



2. helburua: *araudia, programak eta jarduteko protokoloak gaurkotu eta egokitzea, ikasle guztien eskolatzeko inklusiboa ahalbidetuko duten irizpideei kasu eginez*

2.1. HELBURUA Euskal hezkuntza-sisteman ohiko epeetatik at onartua izateko eta bertan sartzeko eskolatzeko irizpideak berrikusi, argitu eta bateratzea.

Helburu hori lortzeko aurrera eramandako jardueri dagokienez, 2014-2015eko ikasturtean hiru lurraldeetako Eskolatzeko Batzordeen datuak jaso eta analizatzeko irizpideak bateratu ziren, egoera bere osotasunean era konparatiboan baloratu ahal izateko. 2014-2015eko ikasturtean lurralde ordezkarien eta planifikazio-zerbitzuko lurralde burutzeekin esku-hartzearekin egin diren analisi horien ondorioek agerian uzten dutenez, badira kasu askotan ezagunak ziren eta, datuak ikusita, berretsi diren errealitateak. Halaber, argiago ikusi dira eskatzeko lurralde batzordeek dituzten arazoak, beren funtzioa zorrotz, ekitatearen arabera eta eraginkortasunez betetzeko.

Alderdi nabarmenak hauek dira:

- *Ikastetxe etorkinen ehuneko handia duten ikastetxeak, kopuru txikia duten beste batzuekin alderatuta.*
- *Biztanleria etorkinaren indize handia duten herriak edo hirietako auzoak —ikastetxe batzuetako indizea auzokoa edo udalerrikoa baino handiagoa da—.*
- *Eskolatzeko eragin-eremu beretik etorri berriak diren ikasleek ikastetxe batzuetan eta beste batzuetan presentzia desberdina izatea: ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko aldeak.*
- *Irizpideak lurralde guztietan berdín ez interpretatzea.*
- *Itunpeko ikastetxeak: ohiko matrikulan % 10 handiagoa da gehienezko ratioa.*
- *Immigratutako familietako batzuek ikastetxe publikoak nahiago izatea.*
- *Zenbait ikastetxetan, ikasle etorkinak eskolatzeko arduraren eragiten du irakasle eta familien artean, hautematen baitute egoera horrek ikasturtea behar bezala aurrera eramatea eragotziko duela.*
- *Eskolatzeko-batzordeek aurkitzen duten kasuistika askotarikoa da: lana, etxebizitza-aldaketak, “nomadaren” izaera herritarren ezaugarri gisa...*
- *Ikasturtearen guztizko ikasleen % 48 inguru eskolatzeko da irailan eta, abenduaren bukaeran, % 70era iristen dira.*
- *Hautematen da familia etorkinek ez dutela behar beste ezagutzen Euskal Hezkuntza Sistema eta bertako egoera soziolinguistikoa.*



Eskolatzeko lurralde-batzordeek egoera aztertzeke egindako analisitik ateratako elementu esanguratsuenak ikusita, kontuan hartzeke proposamen batzuk aurkeztu ziren, zenbait kasutan berehala aplikatzeko,- ondorioz, gaur egun daude indarrean,- hauek esate baterako:

- *Lurralde Ordezkaritzen irizpideak bateratzea, ratioa funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxe guztietan % 10 handiagoa izango dela bermatzeko argibideak zehazte aldera. Ildo horretan, 2016-17ko ikasturtearen matrikulazio-aldia baino lehenago jarduteke proposamenak bidali zizkien eskolatzeko-batzordeei eta Lurralde Ordezkaritzei Ikastetxeen Zuzendaritzak, neurri hori eraginkorra izateke. Horiek horrela, alde batetik, itunpeko ikastetxe pribatuen ratioan plazen % 10 erresebatzen du Administrazioak, talde berriak antolatu eta planifikatzeko orduan; bestetik, Administrazioen eskura geratzen dira, Sailaren eskaerarik izan gabe ratioaren gaineko % 10 betetzen duten taldeetan, ikasleen bajak gertatzen direnean libre geratzen diren plazak. Azkenik, jarraipen zehatz bat egiten da, ehuneko hori ikastetxeetan nola erabiltzen den ikusteko eta % 10eko areagotze horretan eskolatzeko diren ikasleen kopurua egiaztatzeke.*
- *Halaber, Haur eta Lehenengo Hezkuntzan berandu hasten diren ikasleen kasuan, B eta D ereduetan, batez ere, eskolatu direla zehaztu da.*

Aztertzeke eta, behar izanez gero, plan honetara sartzeko, identifikatutako proposamenen artean, aldagai hau dugu:

- *Ikasleen jatorria ez ezik, familia ere kontuan hartzea, ikasle etorkinak eskolatzeko proposamenen ibilbideen jarraipena ezartzeko eta diskriminatzeko edozein motatako irizpideak erabiltzen direla ikusten den kasuetan esku hartzeke orduan, jaioterriak eta familia-inguruneak askotan ez baitituzte antzeke kultur patroiak.*

2.2. HELBURUA Ebaluatzeke prozesua berrikustea, ikasle guztien hezkuntza-premietara egoki dadin

Gure hezkuntza-sisteman denbora gutxi daramaten- etapa oso denboraren erreferentzia markatzat jotzen da- bete jatorri batzuetako ikasleen ebaluazioa betiere gai konplexua da. Alde batetik, aurrerapenak, batzuetan oso handiak, baloratu behar dira; bestetik, curriculumean eta ebaluazioari buruzko aginduetan kalifikatzeko eta hurrengo kurtsora pasatzeko ezarritako irizpideen arabera ere jokatu behar da.

Ezin da kolokan jarri, egokitzeko denbora eman behar zaio gure hezkuntza-sistemara sartzen den haurrari. Horrek euskaraz ebaluatzeke salbuetsi ahal izatea eskatzeko aukera sartzen du ("*Euskara eta Literaturan ebaluatzeke salbuesteko argibideak*").

Horiek horrela, programa pertsonalizatuak egiteke prozesuan tutorearekin lankidetzan aritzea sartzen du Hizkuntza Indartzeke Programak, errefortzu hori emateaz arduratzen diren irakasleen



funtzioen artean. Ebaluazio-prozesua ere sartzen da eta hau zehaztu behar du: arloetan egin beharreko curriculum-egokitzapenak ebaluatzeko prozesuaren erreferentzia izango dira.

Hala ere, ez da erraza ezarritako ebaluazio-irizpideak egokitzea, ebaluazioak titulua lortzea eragiten duen kurtsoetan, DBHko 4.ean, batez ere; gainera, oraindik behar adina menderatzen ez den /diren hizkuntza batean edo bitan egin behar da balorazioa.

Ikasle etorri berrientzako norbanako jarduera planari dagokionez, hasierako ebaluazio-prozesu batekin hasten da eta, askotan, konplexua da, ikasleak aurreko ikasketetan erabili duena ez den hizkuntza batean egin behar delako. "Ikasle etorkinei harrera emateko plana egiteko 2004ko argibideek", 6. kapituluan, hasierako balorazioa eta norbanako jarduera plana sartzen dituzte. Berritzeguneetako aholkulariek eta irakasleek orientabide horiek luze eta zabal landu eta garatu dituzte.

2.3. HELBURUA: Eusko Jaurlaritzako beste zuzendaritza eta sail batzuekin baterako ekimenetan arte hartzea, ikasle etorkinen inklusioa sustatzea helburu duten proiektuetan

Saileko bereko antolaketa-egiturekin koordinazioan egindako lana intentsitatearekin gauzatu da, ildo hauetan:

- *Berritzegune Nagusiko aholkularitzen arteko koordinazioa eta lankidetzak (Kultura Artekotasuna eta Helduen Hezkuntza), prestakuntza-bilerak eta jarduerak batera eginez.*
- *ISEI-IVEIrekin batera analisia egitea, ikastetxeetan lortutako datuetatik eta institutu horren ikerketetatik abiatuta, "bigarren belaunaldiko" ikasle etorkinen egoerari buruzkoa, emaitzei eta integrazio-prozesuari begira.*

Ikasle etorkinen inklusioa sustatzea bideratutako proiektuen inguruan Eusko Jaurlaritzako beste Sail batzuekin lankidetzan aritzeari dagokionez, batera lan egin da, ondorengoekin besteak beste: Lan eta Gizarte Gaietarako Sailarekin, Familia Politikako eta Garapen Komunitarioko Zuzendaritzaren bidez; Biltzen Kultura Arteko Integrazio eta Elkarbizitzarako Zerbitzuarekin, lankidetzak-plan baten barruan, eta Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin.



2.4. HELBURUA: Kultura arteko ikuspegia sustatzeko instituzio eta erakundeekiko koordinazioa eta lankidetzaren bultzatzea

Badira kultura artekotasunaren alde ari diren hainbat eta hainbat elkarte eta erakunderekin harremanak, hezkuntzaren eta gizartearen arloan, gaur egun. Haietako askok batera eginiko jardueretan, Lankidetzaren eta Garapenerako Euskal Agendaren markoan, hartzen dute parte; beste batzuek, ordea, Sailak sustatutako prestakuntza-proiektuetan (Prest Gara, prestakuntza ikastetxean, ...) hartzen dute parte.

Gure ikasleen jatorrizko hizkuntza eta kultura lantzeko programa instituzionalei dagokienez, tokian tokiko Gobernuarekin hitzartutako bi programa martxan ditugu gaur egun: *Hizkuntza Arabiarra eta Kultura Marokoarra (LACM) eta Hizkuntza, Kultura eta Zibilizazio Errumaniarra (LCCR)*; azken hau esperientzia pilotua da, Sailaren eta Errumaniako Gobernuaren Enbaxadaren artean hitzarmenaren zain.

Badira beste administrazio-eragile eta toki-erakunde batzuekin koordinatzeko beste bide batzuk ere (udalerrietako Immigrazioko teknikariak batez ere). Lankidetzaren horrek eman du ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremanetan kultura arteko ikuspegia sustatzeko aukera. Edonola ere, oraindik hasi besterik egin ez den lankidetzaren da eta oso unean unekoa, udalerritan batzuetan bultzatzen saiatzen ari dena: Basauri, Getxo, Ermua, Vitoria-Gasteiz ...

2.5. HELBURUA Gardentasuna hobetzea eta eskaintza orekatzea, ikasleak onartzeko ohiko prozesuan. Ez dago 2012-2015eko Planaren sartuta

Sailak aurrera eramandako jarduerak, batzuetan, planaren aurreikuspenak eta jardura konkretuetara joateko garapen azkarra gaituzte. Ildo horretan, 2012-2015eko planaren jasota agertzen ez zen beste helburu bat, ezarritako bigarren helburuari begirakoa da, matrikulatzeko ohiko aldiaren eskola-plaza eskuratzeko prozesua gardena izateari buruzkoa. Helburu hori ikasleak onartzeko prozesua garatzeko orduan eragin handikoak diren jardura esanguratsuetan zehaztu da. 2014-2015eko ikasturtetik aurrera eraman diren jardura garrantzitsuenak hauek dira:

- *2014-15eko ikasturtetik aurrera badago matrikula guztiz on-line egiteko aukera eta horrek ematen ditu ikastetxea aukeratzeko erraztasunak, familia bakoitza bizi den zonaldearen hezkuntza-eskaintzari buruzko informazio argi eta zehatza ematen duelako. 2016-17ko ikasturterako matrikulatzeko aldiaren gainera, ikaslearen helbidearen eremuko ikastetxe guztien informazioa eman da, ikastetxearen eta helbidearen arteko hurbiltasun-irizpidearen puntuazioarekin.*
- *2014-15eko ikasturtetik aurrera OOGk edo Eskola Kontseiluak onartzeko prozesuan 2 puntu emateko erabilitako irizpideak*



ezagutzea ematea exijitzen da. Horrela jokatu ezean, agian ez dira puntu horiek emango.

- *Vitoria-Gasteizko eskola-maparen eragin-eremuak aldatu ziren 2014-2015eko ikasturtean matrikulatzeko prozesuan, plaza publiko eta itunpekoak, hizkuntza ereduak eta ikastetxeen kopurua zonalde bakoitzean era orekatuan eskainiz. Aldaketa horrek eman du, esate baterako, Vitoria-Gasteizko ikasle guztiek, gutxienez, bi puntu izateko aukera, zonalde guztiak elkarren mugakide baitira.*
- *2016-2017ko ikasturtetik aurrera, talde bakoitzaren ratioa % 10 handiagoa izateko aukera kudeatu du hezkuntza-administrazioak eta % 10 hori bere hezkuntza-premietarako erresebatzen du.*
- *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edota Batxilergoko ikastetxe publikoak bateratzeko prozesuak sustatzen ari dira, bi ikastetxe publikoren artean desoreka nabarmenak gertatzen ziren udalerrietan: Lasarte-Oria, Ermua, Eibar... udalerrri osoarentzat DBHko eskaintza publiko bat eginez.*
- *Ikasleak 2016-17ko ikasturtean onartzeari buruzko agindua eman zenetik, erroldatze-ziurtagiria iruzurra egiteko erabiltzearen kontrako kontrol-neurriak kontuan hartzen dira, ikasleak bizi diren zonaldean eskolatzeko prozesuari laguntzeagatik; halaber, Administrazioak erroldatze-ziurtagiria benetakoa den egiaztatuko du ikastetxeen lagin batean, ofizioz edo prozesuan interesa duten hirugarren batzuen eskariz.*

3. helburua: aniztasun handiko testuinguruetan lan egiteak dakarren erronka dela-eta ikastetxearen planteamendua hobetzeko baliabide espezifikoaren eraginkortasuna eta koordinazioa sustatzea

3.1. HELBURUA Hizkuntza indartzeko eta kultura arteko proiektuak dinamizatzen dituzten irakasleen lana eraginkorra den aztertzea

Hizkuntza Indartzeko irakasleak (ikasle etorri berrien hizkuntza egokitzapenari laguntzeko) indarrean hamahiru urte eta kultura arteko dinamizatzailearen figura (ikastetxe bakoitzean, gehienez ere, hiru ikasturtetan egongo dena eta ikasle atzerritarren gutxienezko ehuneko batzuk izango dituen) bederatzi urte indarrean egon ondoren, pertsona horiek etengabe berregokitzen ari dira ikastetxeetan eta zonalde mailako aholkulariek etengabe ematen dizkiete prestakuntza eta aholkularitza.

Matrikula berrien kopurua mantentzen dela -izan ere, nabarmen handitzen da azken ikasturteetan- kontuan hartuta, Hizkuntza Indartzeko irakasleen lana ezinbestekotzat jotzen da ikastetxe gehienetan gaur egun. Horregatik, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan duela



gutxi sartu diren eta egokitzeko zailtasunak dituzten ikasleen kopuruari lotuta dago ikastetxe publikoetako irakasle horien esleipena. Itunpeko ikastetxeen kasuan, *"kultur artekotasuna sustatzeko ikasle etorkinei zuzendutako programak eta duela gutxi sartu diren ikasleentzako hizkuntza indartzeko programak aurrera eramateko"* deialdia berrikusi da 2016-2017ko ikasturterako.

3.2. HELBURUA Esku-hartze globalaren proiektuak esperimentatzea baztertzearren arriskua duten inguruneetan kokatutako ikastetxeetan. Proiektu horiek eskola-errendimendua eta ikastetxean eskola-elkarbizitza hobetzea dute helburua

2014-2015eko ikasturterik aurrera Hamaika Esku programa 53 ikastetxe publikoetan jarri zen martxan. Sailaren lehentasunezko ildoak garatzeko deialdietan Hamaika Eskuko ikastetxeei ematen zaie lehentasuna, ondorengoetan esate baterako: hizkuntz proiektu eleaniztunak, Sare Hezkuntza Gelan (Informazio eta Komunikazio Teknologiak irakatsi eta ikasteko prozesuan), ...


Berritzeguneek eta Ikuskaritzak egiten duten jarraipen zorrotza ez ezik, Batzorde Teknikoa ere eratu zen, funtsezko eginkizun hauek burutzeko: ikastetxeei tresna eta orientabideak ematea eta Programaren hiruhileko jarraipena egitea. Halaber, urtero Hamaika Eskuren garapenari buruzko txostena egiten ari da.

3.3. HELBURUA Prestakuntza-eragile desberdinek sarean lan egiteko erraztasunak ematea

Berritzegune Nagusian bileren egutegia dago, aniztasunari arreta ematea dela-eta. Gainera, kultur aniztasunari arreta ematen dioten aholkulariek parte hartzen dute kultura artekotasunari buruzko Internet-eko foru batean, sarrera mugatukoa.

Berritzegune bakoitzean dauden beste barne espazio birtual (drive,...) eta beste webgune batzuk ez ezik, site bat ere badago [Berritzegune Nagusian](#).


1.3 EAeko ETA EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAKO HERRITAR ETORKINEN GAINEKO DATU ESTADISTIKOAK



(Iturria: Erkidegoko ikasleen eta ikasle etorkinen eboluzioa - Ikastetxeen Zuzendaritza)

Azken sei urteetan, etengabe gora egin du EAeko ikasleen kopuruak; eta ez du ia alderik izan ikasle etorkinen eboluzioarekin.


Ikasleen banaketa geruzaren arabera.



(Iturria: Ikasle etorkinak Euskadin: ezaugarriak eta emaitzen analisia - ISEI-IVEI)

Estratu publikoetan aldea positiboa da beti. Itunpekoetan, aldiz, kontrako joera dago. Estratu publikoak nolabaiteko oreka du, ia berdina baita eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoa eta bertako ikasleen ehunekoa

1.2.2.b. grafikoa. ED15 - DBHko 2. maila. Geruza bakoitzean eskolatutako ikasle natibo eta etorkinen ehuneko guztizkoarekin alderatuta.




(Iturria: *Ikasle etorkinak Euskadin: ezaugarriak eta emaitzen analisia – ISEI-IVEI*)

DBHko bigarren mailan, eskolatzearen portaerak lotura handiagoa du irakastereduekin, sareekin baino. Hala, D eremuan —publikoan zein itunpekoetan— matrikulatutako ikasle etorkinen ehuneko txikiagoa da bertako ikasleen ehunekoarekin alderatuta. Gainerako estratuetan, berriz, egoera kontrakoa da, nahiz eta alde handiak izan.

17


2.1.1.b. grafikoa. ED15-LHko 4. maila. Ikasle natiboen eta etorkinen emaitzak: gordinak eta ISEK kenduta.



(Iturria: *Ikasle etorkinak Euskadin: ezaugarriak eta emaitzen analisia – ISEI-IVEI*)


Ikasle etorkinen emaitzei dagokienez, ISEK alde batera utzita, gorabehera handiak sumatzen dira ikasgai guztietan. Hala, gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan, esate baterako, desagertu egiten da hasierako hamar puntuko aldea; areago, ikasle etorkinak bertakoak baino bi puntu gorago geratzen dira. Azken horien kasuan, dena den, ISEK alde batera utzita, emaitzak berdin antzekoak dira konpetentzia guztietan.

2.1.2.b. grafikoa. ED15-DBHko 2.maila. Ikasle natiboen eta etorkinen emaitzak: gordinak eta ISEK kenduta.




(Iturria: *Ikasle etorkinak Euskadin: ezaugarriak eta emaitzen analisia – ISEI-IVEI*)

Era berean, DBHko bigarren mailan, bertako ikasleen emaitzetan puntu bateko edo biko aldea baino ez dago aztertutako kompetentzia guztietan, ISEKaren eragina alde batera utzita. Eragin hori, alabaina, nabarmena da ikasle etorkinetan.

Ikasle natiboen eta etorkinen arteko aldeen bilakaera.

(Iturria: Ikasle etorkinak Euskadin: ezaugarriak eta emaitzen analisia – ISEI-IVEI)

Hautematen denez, aldeak murrizteko joera moteldu egin da edo ez da aldatu 2013tik aurrera.



(Iturria: Ikasle etorkinak Euskadin: ezaugarriak eta emaitzen analisia – ISEI-IVEI)

Ikasle etorkinen eta bertako ikasleen arteko puntuazio-aldeen eboluzioa positiboa da argi eta garbi; izan ere, ia kompetentzia guztietan murriztu da alde hori.



2. kapitulua

Ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana, 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren markoan

2.1. 2016-2020ko PLANA EGITEKO HAUSNARKETAK

Ikasle etorkinei arreta ematearen eta ikasle horiek integratzearen eremuan jarduteko plan bat zehaztu aurretik, egin beharreko hausnarketan eta analisisian badira ezinbestean presente egon behar duten printzipio ideologiko, kontzeptual eta metodologiko batzuk. Inklusioaren kontzeptua, zalantzarik gabe, definitu beharreko lehen kontzeptua da.

Horri dagokionez, Booth-ek eta Ainscow-ek (1998) horrela planteatzen dute inklusioa: *"sistema eta hezkuntza-instituzioak sistematikoki hobetzeko prozesua, ikasleak eskolatuta dauden ikastetxeen bizitzan presente egotea, ikastea eta parte hartzea mugatzen duten mota desberdinetako oztopoak ezabatzen saiatzeko. Ikasle ahulenei emango zaie, batez ere, lehentasuna"*.

Autore horien arabera, eskola-jarduerak, haien kulturaren, kudeaketaren eta hezkuntza-praktiken eremuan, ikasleen presentzia, parte-hartze eta ikaskuntza mailak handitzera egon behar dute bideratuta, arrazoi desberdinengatik arrisku handiagoa duten ikasle horiei dagokienez batez ere. *Presentziak* ikasleak arauzko eskoletan eskolatzea eta asistentziaren eta eskoletan, ikaskideekin batera, parte hartzen duten denboraren indizeak barne hartzen ditu; *ikaskuntzak* ahal den errendimendu onena izatea esan nahi du, ikasleen ezaugarrien arabera; *parte-hartzeak* ikasle guztiek eskolak eskaintzen dituen ikaskuntza-esperientzietan berdintasun-baldintzetan parte hartzea esan nahi du, hots, ezagutuak izatea, eskolan elkarrekin bizitza eta eskola-erkidegoko kide izatea.

Kultur aniztasunaren eremuan, erronka handiak ditugu, benetako eskola inklusibo bat sortzeko prozesuan urratsak egite aldera:

- Guztientzako kultura arteko hezkuntza
- Ikasle etorri berriei hezkuntza-arreta ematea

GUZTIENTZAKO KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA

XXI. mendeko herritarrek elkarrekin bizitzeko gaitasuna landu behar dute derrigorrean eta, horretarako, kultura artekotasunaren ikuspegia garatu behar dute. Gainera, elkarrekiko ezagutza izaten da aurreiritzi eta jarrera arrazisten kontrako antidoto onena, asmo oneko kultura arteko programa eta proiektuekin ordezkatzeko zaila den eguneroko harreman eta elkarbizitza hori.

Esaten denez, kultura arteko elkarbizitzan oinarritutako balioak garatzeko ingurune pribilegiatua da eskola. Izan ere, hizkuntza, erlijio



eta sektore sozioekonomiko desberdinetako familietan hazi diren pertsonak aurkitzen ditugu, praktikan inolako esparru sozialetan gertatzen ez dena, ikastetxe askotan -ez guztietan-. Pertsona horiek elkarrekin bizi dira, berdintasun mailan lan egiten dute, elkar harturik, egunero eta eginkizun berdinak betetzen dituzte. Horiek horrela, ikastetxe asko etorkizuneko egiazko laborategia dira.

Bestalde, gaurko migratze-joerek ez dute egonkortzeko itxurarik. *Ikuspegik*¹ egindako ikerketen arabera, jatorri atzerritarreko aita edo ama duten ikasle gehienak dagoeneko gure erkidegoan jaioak dira. Gure herri eta hirietako "giza paisaia" ez da joan den mendearen bukaerakoa eta gure gelek dagoeneko errealitate hori islatzen dute.

Ondorioz, plan honek, oro har, hau kontuan hartzea eskatu behar digu: gure haur eta gazteek hazi eta garatu beharko duten gizartea gero eta gizarte globalagoa, hurbilagoa, komunikatuagoa eta kultura anitzagoa da. Gure ikasle guztiak prestatu behar ditugu derrigorrean, bizitza tokatuko zaien gizartean herritar gisa, gaitasunekin eta era aktiboan, parte hartu ahal izateko.

Horiek horrela, hezkuntza-politikak, batez ere, izaera prebentiboa izan behar du, kultura anitzeko errealitate hori ikastetxe gehienetara hedatuko dela kontuan hartuta.

IKASLE BERRIEI EMAN BEHARREKO HEZKUNTZA ARRETA

	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16
Araba	429	715	601	601	876	893
Bizkaia	1360	1423	1225	1245	1526	1581
Gipuzkoa	1140	952	1053	1206	1311	1237
EAE	2929	3090	2879	3052	3713	3711

(Iturria: Hezkuntza Batzordeak – Ikastetxeen Zuzendaritza)

Urtez urte ingurune berrira eta gure eskola sistemara egokitzeko premia handiak dituzten ikasleen kopuru handi batek jarraitzen du gure geletara etortzen; ikasle horiek gizarte eta eskolako komunikazio-hizkuntzak ikasi behar dituzte, curriculum-jatorri desberdinetakoak dira, ... Zein neurritan ematen ari zaie ikasle berri horiei hezkuntza arretoa egokia?

Matrikulazio berri horiek planteatzen duten egoera, gutxi gorabehera, normalizatuta dagoela esaten den arren, 9 edo 10 urteko edo adin horretatik gorako ikasleak iristen zaizkigunean, horrek oraindik nolabaiteko kezka eragiten duela esaten digu ikastetxeen egunerokoak; ikasle horiek ez dira matrikulatzeko ezarritako epeetan iristen baina, horretaz gain, beste sistema batzuetan eta ezagutzen ez ditugun hizkuntzetan eskolatutako ikasleak dira (kasu askotan, etorri "berriek" eta beren familiek ez dituzte gaztelania eta euskara ulertzen), ikasteko estilo desberdinak dituzte, eta batzuek oso eskolatzeko eskasa izan dute.

Ikasturtean apur-apurka iristen diren eta gure hezkuntza-sisteman lehenengo aldiz hasten diren ikasle horien eskola-arrakasta lortzeko, eskola-giro adeitsua sortu behar da eta ikasle horien sozializazioa sustatu behar dugu (harremanak, kultura arteko balioak, ...). Curriculumera sartzeko hizkuntza ezinbesteko tresna dela kontuan



hartuta, eskolako hizkuntzak eskuratzeko prozesua optimizatu behar da. Giza baliabideak ez ezik, bigarren hizkuntzetan eta haien didaktikan ere prestakuntza beharko dute irakasle guztiek.

Benetan, ikasle berri horiei eskatzen diegun ahalegina oso handia da eta, horregatik, gure hezkuntza sistemak aurkitzen dituen oztopoak aztertu behar ditugu, egoera berrira egokitzeko eta, premia berrietara egokitzeko, egiturak malgutzeko orduan. Horrek ikastetxearen *barne antolaketa* azpimarratzea exijitzen du eta, horretarako, baliabideak eraginkorrak diren aztertu behar da eta *Harrera Plana*, *Aniztasunari Arreta Emateko Plana* eta *Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua edo Urteko Plana* bezalako ikastetxeko beste proiektu instituzional eta agiri batzuk berrikusi behar dira.

Ildo horretan, hausnartu beharreko elementuek testuinguru zabalak hartzen dituzte: sarritan ebidentzietan eta ikerketa zientifikoetan oinarrituta ez dauden sistemen sozialetatik eta inpresio kolektiboetatik ikastetxeen printzipio metodologikoetara eta praktika didaktikora. Izan ere, printzipio metodologiko eta praktika didaktiko horiek etengabe berrikustea eta aldatzen diren errealitatera egokitzea eskatzen dute, beste hezkuntza erantzun batzuen bidez. Horregatik,

- *Aldez aurretik, enplegua, biztanleak bizi diren tokiak eta ikastetxeen banaketa bezalako faktoreak azpimarratu behar dira; zenbait kasutan, faktore horiek zaildu egiten dute ikasle guztiak, autoktonoak eta immigratuak, era inklusiboan eskolatzeko prozesuari lagunduko dion hezkuntza-planifikazioa lortzea.*
- *Jatorri eta kulturen heterogeneotasun gisa interpretatu behar da aniztasunaren ideia. Heterogeneotasun horrek kultura autoktonoak barne hartzen ditu eta, horregatik, ikastetxeetan landu beharreko balio gisa sustatu behar da.*
- *Dena den, auzitan jarri behar dugu sozialki oso sustraituta dagoen honako ideia hau: eskola batean ikasle etorkinen kopuru handiegia egotea gainontzeko ikasleen errendimenduaren kalterakoa da.*
- *Gure ikasleak era inklusiboan eskolatzeko prozesua baldintza eta lagun dezaketen estamentu eta eragileen laguntza izan behar du hezkuntza administrazioak.*
- *Aniztasun handiko testuinguruetan -aniztasun kultural eta linguistikoa kasu honetan-, lan egiteko irakaskuntza erronkak antolaketan, metodologian eta curriculumean egokitzapen desberdinak egin behar izatea dakar. Honek nolabait errotuta dauden praktika batzuen kontra egin dezake talka, ikasle horien errendimendua dela-eta homogeneousatzerako eta dauden itxaropenak gutxitzeko joera baitute praktika horiek.*
- *Analisi honetan ezin ditugu ikasle etorkinen zati handi batek dituen hezkuntza-premiak alboratu, eskola-espazio berrian integratzeko prozesuari eta eskolako hizkuntzak ikasteari lotutakoak, bai komunikatzeko, bai ikasteko eta gaitasun desberdinetan aurrera egiteko. Familia horiek baldintza*



sozioekonomiko ahuletan badaude, premia horiek areagotu egiten dira.

- *Irakaskuntzari aniztasunaren testuinguruetan aurre egiteko, ikastetxe mailako planteamendu global batek izan behar du, derrigorrean, abiapuntua, ikasle guztiak arrakastaz eskolatzea helburu argia izango duten hezkuntza-proiektu batekin eta urteko plan batekin eta baliabideak behar bezala antolatuz.*
- *Baliabide material eta giza baliabideekin batera joan behar dute esku hartzeko proposamenek, ikastetxeen esku hartzeko planetan testuinguruaren arabera planteatzen diren praktika horiek aurrera eraman ahal izateko. Edonola ere, dagoeneko dauden baliabideen optimizazioa eta errentagarritasuna berrikusi behar dira; adibidez, "hezkuntza laguntzaren" kontzeptua ikuspuntu inklusibo batetik birpentsatu behar da.*
- *Irakasleen etengabeko prestakuntzak estrategia berriak aztertu behar ditu, proposatutako jardueretan eraginkortasun handiagoa lortzeko lagungarri izango den behar bezalako ingeniari-tza didaktikoa sortzen laguntzeko. Irakasleen prestakuntzari eta berriztapenari laguntzeko zerbitzuek eta unibertsitate-inguruneak ireki edo finkatu beharko lituzkete hezkuntza-praktika hobetzeko prozesuan eragina izango duten ikerketa-ildoak.*

Zalantzarik ere ez dago; eskola inklusiboak eta kalitatekoak izateko baldintzak sortzeko hezkuntza-sistema osoan eraldatze sakonak exijitzen ditu: hezkuntza-politika eta arauetan, ikastetxeen finantzabidean, antolaketan eta funtzionamenduan, irakasleen jarrera eta praktiketan eta eragile desberdinen harrera-mailetan; hots, hezkuntza eredu desberdina egotea dakar, ikastetxe guztietan aniztasuna errealitate bat eta ikastetxearen proiektuan lehentasunezko balio bat izango den eredu, alegia.



2.2. 2016-2020ko PLANAREN BALIOAK ETA PRINTZIPIO ERAGILEAK

Esku-hartze eta jarduera konkretuak gauzatzeko, edozein jardueraren oinarri diren balio eta printzipioak hausnartu eta definitu behar ditugu derrigorrean. Kasu honetan agiri honen azken zentzua horrela laburbil dezakegu: pertsona guztiek, oro har, eta haur eta gazteek, bereziki, hezkuntzaren eremuan dituzten funtsezko eskubideak gauzatu ahal izatea.

Ondorengoak dira planaren identifikazio-zeinu argiagoak diren balioak:

- erantzukizun soziala
- ekitatea eta konpromisoa
- aukera-berdintasuna
- aniztasuna
- profesionaltasuna
- berriztapena
- kalitatea
- malgutasuna
- gardentasuna
- zeharkakotasuna

Oso era eskematikoan esanda, bi dira agirian zehar aurrera eramandako jardueren printzipio eragileak:

Hezkuntzarako eskubidea: guztien oinarrizko hezkuntza, inolako bereizketarik egin gabe, bermatzeko behar diren baldintzak lortzen dira. Izaten, pentsatzen, ekimena izaten, elkarrekin bizitzen eta komunikatzen ikastera bideratuta dago oinarrizko hezkuntza hori.

“Izan ere, eskola inklusiboak ikasle guzti-guztiei eskaini behar dizkie hezkuntzan aurrera egiteko aukera berberak, bai eta ikasketetan eta beren bizitzan ezinbesteko gerta lekiekeen edonolako laguntza ere (curriculumean, beren bizitzan, laguntza materiala...), nor bere autonomia garatzeko gai izan dadin. Testuinguru bat eraikitzea, horixe da kontua, bai eta hura pertsonen bizimodura egokitzea ere, neska-mutilen artean egon litezkeen desberdintasunei aurre egin eta talde nahiz pertsona zaurgarrienei beharrezko gerta lekizkiekeen babes eta laguntza espezifikoak bermatzeko.” (Heziberri 2020).

Hezkuntzan eskubideak egotea: irakatsi eta ikasteko prozesu nabarmenak, sortzaileak, inklusiboak, ikasleengan zentratuak eta ikasleen nortasuna, talentuak eta gaitasunak erabat garatzera bideratuak ezartzen dira.

“Euskal hezkuntza-sistemako haur guztientzat derrigorrezko hezkuntza bermatuta, beraz, hamaika baliabide jarriko dira abian, eta zenbait gune sortuko, eta hainbat neurri eta erabaki ere hartuko dira, kalitatez eta ekitatez erantzuteko ikasle guzti-guztien hezkuntza-premiei. Hala, izan ere, ikasleen irteera-profilean aurreikusten ziren oinarrizko kompetenziak lortzea helburu hartuta, neska-mutil guztiek ahalik gehien garatu ahal izango dituzte beren gaitasun pertsonalak. Ikuspegi honetan, estrategia metodologikoen garrantzi handia hartzen dute, maila bereko pertsonen arteko interakzioa ahalbidetzen baitute kalitatezko ikaskuntza-pizgarri ugari ematen dituzten testuinguru normalizatuetan, eta, horrez gain, baita tutoretzen eta aholkularitza- nahiz orientabide-zerbitzuen bitartez ikasleei arreta pertsonalizatua izateko aukera ematen dietelako ere.” (Heziberri 2020).



Plan honetan agertzen da printzipio horiek betetzearen aldeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sail honen konpromisoa, eskubide horiek eskola-erkidego guztian beteko direla bermatzeko lege, politika eta egitura eraginkorrak ezartzera bideratutako helburu eta jardueren bidez; eta, kasu honetan, ikasle etorkinei emango zaie lehentasuna.

2.3. PLANAREN HELBURU OROKORRA

Plan honen helburu orokorra horrela definitzen da:

Ikasle etorkinei arreta emateko planak, eskola inklusibo eta kultura- arteko baten markoan, gure sisteman sartu berriak diren ikasleen eta atzerriko jatorria duten familietako ikasleen inklusioari laguntzea eta ikasle horiek gizartean benetan parte hartzea ditu helburu nagusiak; horretarako, ikastetxeetan aurrera eramaten diren jardueri laguntzeko ekimen normatiboak, antolaketari begirakoak eta metodologikoak sustatuko ditu, ikasle horiek hezkuntza-sistemara errazago sartzeko eta sistema horretan jarraitu ahal izateko eta, haien jatorrizko kulturak ezagututa, arlo linguistiko, akademiko, pertsonal eta profesionalean aurrerapenak egin ditzaten.



25

Agiri honen 2.4. puntuan definitu eta adierazitako jarduera eremu bakoitzean gauzatuko da, era espezifikoa, helburu hau; hots, arau-, informazio-, komunikazio-, planifikazio- eta berriztapen-eremu bakoitzerako helburu espezifikoak zehaztuko dira, metodologikoki aurrera eraman beharreko jarduerak era egokiagoan identifikatzeko eta jarduera bakoitzean inplizituko doazen lanak operatiboagoak izateko. Halaber, sailkapen honek emango du egin beharreko lanen ardurak banatzeko eta, plana aldi baterako bete ondoren, gauzatu, jarraipena egin eta azken ebaluazioa egiteko orduan konpromiso handiagoa izateko aukera. Dena den, marko teoriko eta kontzeptualean, ezinbestekoak dira aipatutako hiru jarduera eremuen arteko sinergiak, benetan emaitza esanguratsuak lortzeko, planaren helburu orokorrak betetze aldera.





2.4. ESKU HARTZEKO EREMUAK


ARAU, INFORMAZIO ETA
KOMUNIKAZIO ESPARRUA



PLANIFIKAZIOA



BERRIZTAPENA





2.5. PLANAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK

1. Ekitatearen aldeko konpromiso instituzionala

2. Informazioa eta komunikazioa

3. Antolaketa eta kudeaketa

4. Baliabideak

5. Prestakuntza eta ikerketa

6. Planak eta programak



1. Ekitatearen aldeko konpromiso instituzionala

Gizarte zuzenago batek hezkuntza zuzenago eta bidezkoagoa izatea ere badakar. Bigarren baldintzak lehenengoa ezinbestean eragiten ez duen arren -edo, behintzat, ez da lehenengoaren kausa bakarra-, hau da egia: bigarrena gertatu gabe ezin da lehenengoa gertatu. Horregatik, gizarte zuzenago bat nahi badugu, hezkuntza bidezkoago bat beharko dugu.

Ekitateak ez du pertsona guztiei berdin tratatu behar zaienik esan nahi; gehien behar duenari gehiago ematea da eta, batez ere, behar dituen baliabide eta laguntzak pertsona bakoitzari eskaintzea, hezkuntza-aukerak aprobeztatzeko eta berdindu ahal izateko moduko ikaskuntza-emaitzak lortzeko aukera berdinak izan ditzan.

“Oinarrizko Hezkuntzak hezkuntza-eskubidea bermatu behar die pertsona guztiei; beraz, zuzentasun eta justizia sozialaren planteamendu etiko batetik, hezkuntzak aukeraberdintasuna eskaini behar du, inolako bazterketarik gabe, eta konpentsatu egin behar ditu desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak. Oinarri horren arabera, bai Administrazioak eta hezkuntza-arduradunek bai hezkuntza-komunitateko profesionalak eta partaide guztiek bultzatuko dute inklusioa, hau da, hezkuntza barneratzailea eta pertsonalizatua, oinarrizko eta derrigorrezko hezkuntza amaitu arte. Horrekin batera, modu osagarrian, hezkuntza-sistemak erronkatzat hartu behar du ahalik eta ikasle gehienak bikaintasunera eramatea.” (Heziberri 2020).

Ekitatea oinarri den ikuspegi honen barruan, ikasleak onartzeko politikak hobetzen jarraitu behar da, funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxe guztietan diskriminazioa, agerikoa edo ezkutukoa, izan ez dadin eta ikastetxeetako ikasleak ikastetxe horien eragin eremuaren ezaugarrien araberrakoak izan daitezen. Dena den, eta arrazoi desberdinengatik, eskola batzuetan izango da hezkuntza arreta espezifikoaren premia handiagoak dituzten ikasleen ehuneko handiagoa eta, ikasle horiek beren ikasteko prozesuan arrakasta izango dutela ziurtatzeko, harrera- eta laguntza-sistemak aurrera eramaten jarraitu beharko da.

Bide hau luzea da, garrantzi handikoak ere badiren beste faktore batzuek baldintzatzen baitituzte eskola-ekitateari eragiten dioten faktoreak: enplegua, hiri eta udalerrien hirigintza-planifikazioa, etxebizitza-politikak, komunitate bateko kide izatearen kontzientzia, familien lehentasunak, ...

Lehen ardatz estrategiko honetan, ondorioz, euskal administrazioaren eskumeneko hezkuntza araudiaren berrikuspen kritikoa egingo dugu, eskola -inklusioren aldeko politikak polikiago joatea agian eragiten ari diren elementu horiek identifikatze aldera. Ikasleen onarpenari buruzko Dekretua, dekretu horren ondoriozko agindua eta eskolatze batzordeei arau-izaera ematearen komenigarritasuna zorrotz eta konpromisoarekin landu behar dira, gure gizartearen eta hezkuntza sistemaren premia berrietara egokitzeko elkar aurkitzeko eta adosteko puntuak bilatuz.



Halaber, datuak bildu eta analizatzea funtsezkoa da, hartutako neurrien eragina zorrotz eta garden ebaluatu ahal izateko moduko urteko txostenak emanez.

2. Informazioa eta komunikazioa

Biztanle etorkinak integratu ahal izateko, pertsona horiek eskubide eta betebeharren subjektu direla sentitu beharko dute, elkarrekin bizitzeko euskal gizartean eraiki dugun markoan.

Horretarako, funtsezkoa da behar den informazioa izatea pertsonen hil edo biziko premiak, lana, etxebizitza, osasuna eta hezkuntza esate baterako, osatzen dituzten alderdi bakoitzean.

Etorkinek edota gure sistemara etorri berriak direnek oso era eskasean, partzalean eta zehaztasunik gabe ezagutzen dute eskola-errealitatea. Kasu askotan, euskara, gure erkidegoko berezko hizkuntza gisa, existitu egiten dela ere ez dakite etorkinek, ezta ikastetxeetan, eskola-eremuan, jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan, ikasleek ikasteko komunikatzeko hizkuntza gisa gehien erabiltzen den hizkuntza dela ere. Beste elementu inportante bat gure sistemak nola funtzionatzen duen argitzea da; izan ere, funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxeen multzo batek osatzen du sistema eta araudi eta eskolatzeko irizpide berberak aplikatzen dira, haien titulartasuna zein den alde batera utzita.

“Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioaren arabera (1989), adingabeen garapenerako beharrezkoak diren bizi baldintzak ematearen ardura nagusia, bakoitzak ahal duen neurrian, gurasoei edo tutoreei dagokie nagusiki, bai eta, modu subsidiarioan, gizarteari ere, herri-administrazioen bidez eta bere baliabideen arabera, gurasoei edo tutoreei lagundu behar baitie adingabearen eskubide hori gauzatzeko. Hain zuzen ere, oinarritzko hezkuntza doan izatea giza eskubide bat da, nazioarteko itun askotan aitortua, eskubide horren jabe dira ikasleak eta haien gurasoak edo tutoreak eta gizartea (hau da, hezkuntza-administrazioak, edo hezkuntza bermatzeko egitura eta baliabideak emateaz arduratzen diren erakundeak).” (Heziberri 2020).

Hausnarketa horiek aintzat hartuta, informazioa eta orientabidea emateko lurraldeetako eskolatzeko-bulegoak eratzeko prozesuan gauzatuko da bigarren ardatz estrategikoa. Bulego horiek egoera konkretu bakoitza kontuan hartuta arituko dira, ikasle etorkinei harrera eta arreta emateko prozesuari hasiera eman edo hobetzeko. Honako faktore hauek baloratuko dira: zonalde, herri edo ikastetxe bakoitzaren errealitatea eta datu kuantitatibo eta kualitatiboak, ikaslearen egoera konkretuari, etorri denetik eskolatu arte pasatutako denborari, haren hizkuntza gaitasunari, haren alde aurreko eskola-ibilbideari eta familia-inguruneari begira. Halaber, honelako irizpideak aplikatuko dira: hots, funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxe guztiek laguntza eman beharko diote zonaldean bizi diren ikasle etorkinak eskolatzeko prozesuari. Jarduteko beste ildo inportante batzuk instituzioen arteko lankidetzak sustatze aldera bideratuko dira, biztanle etorkinei eman beharreko arreta osoari laguntzeko, eta, arreta horren barruan, eskolatzeko egokiena herritarrengandik hurbilen dauden zerbitzuekin partekatuko den informazioa izango da.



3. Antolaketa eta kudeaketa

Hezkuntza sisteman, normalean, bi dimentsio inportante bereizten dira: curriculum- eta pedagogiaren dimentsioa, hezkuntza- eta pedagogia-eredua agertzen duena, eta antolaketa egituraren eta hezkuntza baliabide eta zerbitzuak administratzearen dimentsio instituzionala. Bi dimentsioek hezkuntza sistema eratzen dute. Kasu honetan bigarren dimentsioan zentratuko gara. Hezkuntza eskaintzaren planifikazioak (eskola-plazen planifikazioak, eragin-eremuek, funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxeen arteko plazen orekak) eta ikastetxearen barne antolaketak (taldekatzeek, ratioek, ordu-antolaketak) ikasle guztiei eta, batez ere, gizarte egoera ahulenekoei eman beharreko arreta etengabe hobetzearen zerbitzuan egon behar dute. Halaber, ikastetxeei ematen zaizkien baliabideek nahiko izan behar dute eta behar bezala kudeatu behar dira, ikasleekin egin beharreko esku-hartzean nahi den eragina izan dezaten.

“Praktikak eta diskurtsoak, orientabide ofizialak, jarrerak, egunkarietan esaten dena eta zenbait irakasle gelatan ikasle etorkinei buruz esaten dena erreparatzen baditugu, oso erraza da ondorio honetara iristea; hots, diseinatutako planek eta erabilitako material eta baliabideek eskola (irakasle eta ikasleak) ezegonkortasun-faktorea omen diren ikasle etorkinen eraginetik babestu nahi duen logika bati ematen diote erantzuna, eta ez beste ideia honi: nola eskainiko diegu ikasle etorkinei ere kalitateko hezkuntza bat? Nola berrikusiko dugu eskolaren antolaketa eta funtzionamendua, guztientzat dena baino hobea, inklusibo eta eraginkorragoa, izan dadin? Izan ere, planteamendu hori sarritan erretorikotzat eta politikoki zuzentzat jotzen da; hots, balio ez duen ideia irreal dela pentsatzen da”. Xavier BESALÚ COSTA. Gironako Unibertsitatea.

Hirugarren ardatz estrategiko honetan Vitoria-Gasteizen landu ziren puntuei ekingo diegu: eskola-eragineko eremuak, haietako bakoitzean dauden eskola-plazen proportzioa, hezkuntza sareen arabera, eta hezkuntza-sare horiek ikasle autoktono eta etorkinak eskolatzeko prozesuan duten eragina. Hobetzeko tartea dela uste den kasuetan, esku hartzeko proposamenak egingo dira.



4. Baliabideak

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko planeko (2016ko martxoan) ikastetxe publikoetan autonomian sakontzeari buruzko 6. ildo estrategikoan, hobetzeko arlo gisa eremu metodologikoetan eta curriculum eremuetan autonomia pedagogikoari eta pertsonalaren eta baliabideen kudeaketan autonomiari ematen zaie lehentasuna.

Horregatik, plan honen 4 zk.ko ildo estrategikoan, aipatutako hobekuntza-planaren helburuak lortzearekin batera, baliabideak esleitzeari eta baliabide horien eraginkortasunari buruzko analisi serio bat egingo da, baita baliabide horiek proiektu konkretuetara eta irakasle guztien inplikaziora lotu ere; izan ere, ikasle etorkinei eman beharreko hezkuntza-arreta hobetzeko, hizkuntza berri bat edo gehiago menperatzera bideratutako lanari begira batez ere, inplementatuko dira baliabide horiek.

Hizkuntza berri bat jabetzearen bidea luzea da eta ez du ikasleak hizkuntza horietan komunikatzeko gai direnean, esaten zaiena ulertzen dutenean eta argi hitz egin dezaketenean bukatzen. Gaiari buruz egin diren ikerketa guztietatik ondoriozta daitekeenez, bost urte, gutxienez, behar dira hizkuntzaren trebetasun akademikoak behar bezala menperatzeko, eskola exijentziak arrakastaz bete ahal izateko eta eskolako hizkuntza txiki-txikitatik ezagutzen duten ikasleen antzeko maila bat lortzeko. Horrek ikasle etorkinei hizkuntzaren eremuan ematen zaizkien laguntzek ez zutela harrera espazioak uzten dituzten unean bukatu behar esan nahi du, haien premiak ez baitaude oraindik beteta, itxuraz kontrakoa dirudien arren; horiek horrela, irakasle guztiek beren lanaren hizkuntz dimentsioaz jabetu beharko lukete.

31

5. Prestakuntza eta ikerketa

EAEko Hezkuntza-sistema Hobetzeko Planean agertzen den bezala:

“Hezkuntza komunitateak eragin nabarmena du ikasleen ikaskuntza prozesuetan. Ikasleek berdinen artean eta helduekin testuinguru formal eta ez formalean ezartzen diren interakzioen bitartez ikasten dute. Ikasle bakoitza osorik garatzea lortzeko, ezartzen dituen harreman guztien bitartez, bere ikaskuntza prozesuan eragina duten guztiek printzipio, helburu eta jardun ildo berdinak izatea beharrezkoa da. Horretarako ezinbestekoa da hezkuntza komunitate osoaren prestakuntza, irakasleak, zuzendaritza taldea, irakasle ez diren langileak eta familiak barne.

Eremu akademikotik datozen ikerketek, estatuko eta nazioarteko organismo eta erakundeek sustatutako azterlanek, eta Europar Batasunaren esparruan estatu kideei egindako gomendioek



irakasleen eta zuzendaritza taldeen gaitasun profesionala hobetzera bideratutako politikei arreta berezia eskaini diete, hezkuntza eta prestakuntza sistemen kalitatea hobetzeko tresna erabakigarria delako.”. Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko plana (2016ko martxoa).

Ildo horretan, aldaketaren eragile nagusiak, irakasletzak, baldintzatzen du hezkuntza hobetu nahi duen edozein ekimen, irakaskuntza-kalitatearen hobekuntzak baldintzatzen baitu hezkuntzaren kalitatea hobetzeko prozesua.

Eskolan mugitzen garen kultura artekotasunaren testuinguru honetan, guztiz beharrezkoa da hezkuntza indartzeko irakasleen prestakuntza indartzea, ikasle etorkinei arreta emateko orduan.

Familiari dagokienez, beren prestakuntza eta inplikazioa funtsezkoak dira ikasleen emaitzen arrakastarako.

“Familiak ikastetxera hurbiltzeak, koordinatuta lan egiteak, ondorio gisa ekartzen du eskolarekiko konfiantza handitzea, bizikidetzaren hobetzea, ahaleginak koordinatzea, eta haurrek irakaskuntzan oinarrituta jasotzen dituzten interakzioak handitzea. Komunitate osoak elkarrekin lan egiteak eskola gune seguru bihurtzea, absentismoa gutxitzea, ikasleek ikasteko aukera gehiago izatea eta, beraz, ikaskuntzaren emaitzak modu ikaragarrian hobetzea.” Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema hobetzeko plana (2016ko martxoa).

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan hartuta, plan honen 5. ardatz estrategikoak aparteko garrantzia hartzen du; izan ere, lan handia egingo da profil profesionalak lortzeko prozesuan, metodologiak egokitzera bideratutako prestakuntza espezializatuarekin eta, kultur aniztasunarekin eta ikasle etorkinekin egiten den lanean, arrakasta izango duten proposamen eta praktikak eginez. Halaber, zuzendaritza-taldeen prestakuntza ere azpimarratzen da, ikastetxeetan funtsezko elementua diren aldetik. Hori guztia instituzioekin eta prestakuntzaren, ikerketaren eta kultur aniztasunari, inklusioari eta ikasle etorkinei buruzko ikerketen arloan ospea duten erakundeekin lankidetzan estuan.

6. Plan eta programak

Ikasle etorkinekin esku hartzeko plan eta programa espezifikoak aurrera eramane behar ditugu euskal hezkuntza sistemak eta, horretarako, baliabideak mobilizatu, hezkuntza espazioak sortu eta neurriak hartu ditugu, ikasle horien guztien hezkuntza-premiei ekitatean oinarritutako kalitateko erantzun bat emateko eta hezkuntza-sistemako ikasle guztiek beren gaitasun pertsonalak, irteera-profilean aurreikusten diren oinarritzko gaitasunak lortze aldera bideratuak, ahalik eta gehien gara ditzaten, eskola inklusiboaren planteamendutik.

“Eskola inklusiboak gizarte-gune demokratiko eta parte-hartzaileak eraiki behar ditu, sozialki aberastuak, ikaskuntza erraztu eta elkarrekin bizitzearen, ikastearen, komunikatzearen, elkarrekin harremanak izan, elkarrekin jardun eta gainerako gizarte-taldeetako kideengana hurbiltzearen garrantzia azpimarratuko dutenak. Ikasle bakoitza ikasgela heterogeneo batean



egongo da, ikastaldeak ere heterogeneoak izango dira, baina ikasgela heterogeneo horretan lana antolatu eta planifikatzeko ardua irakasle-talde batek izango du. Gune horretan, garrantzi eta eraginkortasun handiko hainbat praktika eta estrategia jarriko dira abian, konpetentziak lantzea eta garatzea ardatz hartuta: ikastalde kooperatiboak, ikasgelako irakaskuntza partekatua, lankidetzak, ikastalde interaktiboak, berdinen arteko tutoretzak, solasaldi dialogikoak eta proiektukako lanak, besteak beste. Estrategia horiek zenbat eta lehenago jarri abian, jakina, emaitza hobeak emango dituzte. Lekuan lekuko eta unean uneko zaurgarritasuna zenbat eta handiagoa izan, gainera, begi-bistakoa da are beharrezkoagoa izango dela eskura ditugun baliabide eta babes guztiak eraginkortasunez erabiltzea, arazoei irimotasunez erantzuteko. Etxekoekin elkarlanean jardutea eta, beraz, eskola-ingurunea eta familia-ingurunea elkarrengandik ahalik hurbilen egon daitezen saiatzeko metodo bikaina da, inondik ere, eskola inklusiboan ager litezkeen zailtasunei aurre egiteko; baina are bikainagoa da, zalantzari gabe, ikasleek ikaskuntza erraztu eta hobetzeko baliabide gisa. Horretarako, guztiz erabakigarria da familiek ahal beste informazio izan eta erabakitasunez parte hartzea beren seme-alaben derrigorrezko ikastaldian, hau da, Haur Hezkuntzarekin hasi eta neska-mutilek 18 urte bete bitartean irauten duen horretan, adin horretako herritarrek ez bailiokete utzi behar beren prestakuntzari. Erabat logikoa denez, ezinbesteko gertatuko zaigu, hezkuntzari buruzko itxaropenok hedatuko baditugu, zenbait ibilbide eraikitzea; ibilbide malgu eta askotarikoak, bai, baina egiaztapena lortu eta bizi osoan ikasten jarraitzeko beharrezkoak diren gutxienezko konpetentziak lortzera eramango gaituztenak.”. (Heziberri 2020).

Ikuspegi honetatik abiatuta, garrantzi handia hartzen dute testuinguru normalizatuetan berdinen arteko interakzioa sustatzen duten, ikasteko kalitateko estimulua lantzen dituzten eta ikasleei eman beharreko arreta pertsonalizatua ahalbidetzen duten aldaketa metodologikoen. Halaber, funtsezkoa da toki erakundeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin sarean lan egitea, erkidegora irekita egongo diren kultura arteko proiektuak sustatzeko asmoz.


Heziberri 2020 markoaren arabera, berriztapen pedagogikoen, estrategia metodologikoen eta ikastetxe mailako proiektu eta planek, non eskola komunitateak parte hartzen duen, neurri handi batean zehazten dute hezkuntza-laguntzako premia handiagoa duten ikasleek arrakasta.

6. ardatz estrategikoan plan eta programak martxan jartzea aipatzen da, bai orokorrak, arrakasta esanguratsua izan duten esperientzietan oinarrituak eta ikastetxe guztietara hedatzeko modukoak, bai ikastetxe bakoitzaren errealitatera eta premietara egokitutako proposamenak.




2.6. ARDATZ ESTRATEGIKO BAKOITZAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK

ARAUEN ETA INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOAREN ESPARRUA






PLANIFIKAZIO ETA KUDEAKETAREN EREMUA





BERRIZTAPENAREN EREMUA



2.7. JARDUERA ILDOAK ETA ADIERAZLEAK.

**1. ARDATZ ESTRATEGIKOA:
EKITATEAREN ALDEKO KONPROMISO
INSTITUZIONALA**
1.1. HELBURUA:

Arau-garapenean aurrera egiten jarraitzea, ikasle guztiek errazago izan dezaten eskolatzera berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera

JARDUERA ILDOAK	ADIERAZLEAK
<p>1. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Agindu berria indarrean jartzea. Agindu horren bidez eskaerak aurkezteko eta onartzeko epeak finkatzeko egutegi bateratua ezartzen da eta ikasleak 2071-2018 ikasturtean onartzeko argibideak onartzen dira, eta familia-unitatearen urteko errentaren irizpidea aldatzen da.</p>	<p>1. 2017-2018ko ikasturtetik aurrera, ikasleen onarpenari buruzko Aginduan familia-unitatearen urteko errentaren irizpidea aldatu da. (2017-2018)</p>
<p>2. Dekretu berria argitara ematea ikasleen onartzeko prozesua arautzen duen martxoaren 4ko 35/2008koaren ordez. Dekretu horren bidez zuzenduko dira eskolatzera berdintasun-baldintzetan sartzeko eragozpenak izan daitezkeen elementuak, onartzeko baremoa eskaera eskaintza baino handiagoa denean batez ere. Ildo horretan, puntuazioak aztertzea eta, bere kasuan aldatzea edo kentzea proposatzen da.</p>	<p>1. 2018-2019ko ikasturtetik aurrera 35/2008 Dekretuaren ordezko beste baten arabera jokatu da ikasleak onartzeko orduan. (2017-2018).</p>
<p>3. Eskolatzeko-batzordeen oinarriko erregulazio bat gehituko zaio ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan ikasleak onartzeko prozesua arautzen duen Dekretuari; izan ere, lurralde mailako Eskolatzeko Batzordea eratu beharko da derrigorrean lurralde historiko bakoitzean, lurralde bakoitzeko onartze-prozesuko berme-batzordeaz gain.</p>	<p>1. Ikasleak onartzeari buruzko Dekretu berria, Eskolatzeko Batzordeak hiru lurraldeetan derrigorrean eratu beharko direla sartuko duena, sartu da indarrean. (2017-2018)</p>
<p>4. Titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolei laguntzak emateko agindua aztertzea testuinguru kaltetuetao ikasleen eskolatzeko laguntzen duten irizpideak sartzeko.</p>	<p>1. Irizpide hauek aplikatzearen ondorioz, zenbatu da diru-laguntzen aginduaren bidez jasotako diru-laguntzaren zenbatekoa aldatu duten ikastetxeen kopurua (2017-2018).</p>



**1. ARDATZ ESTRATEGIKOA:
EKITATEAREN ALDEKO KONPROMISO
INSTITUZIONALA**

1.2. HELBURUA:

Jarduteko irizpideak bateratzeko prozesuarekin jarraitzea, euskal hezkuntza-sistemara ohiko epeetatik at sartzen diren ikasleak behar bezala eskolatzeko

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Hezkuntza Sailburuordetzaren ebazpen berri bat egitea, hiru lurraldeetako Eskolatzeko Batzordeen osaketa, funtzioak eta antolatu eta funtzionatzeko arauak zehaztuko dituen.</p>	<p>1. Eskolatzeko Batzordeak arautzen dituen Hezkuntza Sailburuordetzaren ebazpena argitara eman eta 2016-2017ko ikasturtetik aurrera sartu da indarrean. (2016-2020)</p>
<p>2. Ikasle etorkinak funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxe guztiei esleitzeko orduan irizpideak finkatzea eta aplikatzea.</p>	<p>1. Ikasle etorkinak esleitzeko eskola-zonalde bakoitzean ezarritako irizpideak aplikatu dira. (2016-2020)</p>
<p>3. Urteko txosten zehatz bat ematea, ikasleen kopurua eta ohiko epeetik at iritsi diren ikasleak eskolatu diren sare, eredu eta zonaldeak agertuko dituen.</p>	<p>1. Txosten bat, ohiko epeetik at matrikulatu diren ikasleen eskolatzeko datu zehatzekin, eman da urtero argitara. (2016-2020)</p>



**1. ARDATZ ESTRATEGIKOA:
EKITATEAREN ALDEKO KONPROMISO
INSTITUZIONALA**

1.3. HELBURUA:

Ikasle etorkinak era inklusiboan eskolatzea lortzeko lanean jarraitzea, eskola eragin-eremu bakoitzean funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxeetan

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Ikasturte mailako txostena egitea, sare, ikastetxe eta eskola eragin-eremuen arabera eskolatuta dauden ikasle etorkinei buruzkoa.</p>	<p>1. Ikasturte bakoitzeko txosten bat, ikasle etorkinen eskolatzeari buruzkoa, eman da argitara. Txosten horrek Saileko Estatistika Unitateak bildutako datuak agertzen ditu. (2016-2020)</p>
<p>2. Prozedura ezartzea, epez kanpo iritsitako ikasleak eskolatzeko prozesuaren jarraipena egiteko. eta , edozein motatako diskriminazio irizpideak erabiltzen direla ikusiz gero, esku hartzeko.</p>	<p>1. Ikasleen % 80 baino gehiagok esleitutako ikastetxean jarraituko dute hurrengo hiru ikasturteetan. (2016-2020).</p>
<p>3. Edozein motatako diskriminazioa eragiten duten irizpideak hautematean esku hartzea da eta kasuak erregistratzea.</p>	<p>1. Erregistratutako kasuen % 100ean esku hartu da. (2016-2020)</p>



2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

2.1. HELBURUA:

2.1. HELBURUA:

Lurraldeetako eskolatzeko-bulegoak sustatzea eta koordinatzea

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Lurraldeetako eskolatzeko-bulegoen eginkizuna eta funtzionatzeko araudia definitzea</p>	<p>1. .Ikastetxeen Zuzendaritzaren jarraibide bat eman da argitara, zeinetan xedatzen baita eskolatzeko-bulego bat egongo dela lurralde bakoitzean, ohiko matrikulazio-epean eta matrikula bizian familiei arreta eta orientabidea emateko, helburu nagusia modura.(2017-2018)</p>
<p>2. Lurralde bulegoek funtzionatzeko giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea.</p>	<p>1. Lurralde bakoitzean eskolatzeko-bulegoak espazio fisikoa du. eta bertan Ikuskaritzako pertsona bat eta bertako langileak koordinatzen duen teknikari bat gutxienez egongo dira. (2017-2020).</p>
<p>3. Familientzako atal espezifikoa Sailaren WEB orriari gehitzea.</p>	<p>1. Web orri instituzionalaren epigrafe espezifiko batean jaso da familientzako informazioa eta beste atal bat sartu da ikasle etorkinentzat edota euskal hezkuntza sistemara duela gutxi sartu diren ikasleentzat. (2017-2020)</p>
<p>4. Material informatiko gaurkotuak (gidak, orientabideak, ...) argitara ematea, paperezko euskarrian eta euskarri digitalean. Alderdi nabarmenenak eta familientzat interesgarrienak direnak azalduko dituzte.</p>	<p>1. Ohiko matrikulazioari buruzko informazio-liburuxka bat berriro eman da argitara, baita euskal hezkuntza-sistemari buruzko gida bat ere. Gida honek ikastetxeei buruzko informazioa, sarritan egiten diren galderak eta tramitazio interesgarriak (eskaerak, bekak, diru-laguntzak, garraioa, ...) sartzen ditu. (2017-2020)</p>
<p>5. Sartu berri diren ikasleek izandako harrera eta eskolatzeko gainerako segimendua egitea</p>	<p>1. Urtero segimenduaren txostena egin da eskolatzeko bulegoetan.</p>



2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

2.2. HELBURUA:

Hiru lurralde bulegoetako eskolazeari buruzko informazioari eta komunikazioari lotutako protokoloak aurrera eramaten jarraitzea, funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxe guztientzat

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Ikastetxeetan jarduteko protokoloa berrikustea, bai ohiko matrikulazio-prozesuan, bai beranduago eskolatu diren ikasleen matrikulazioan.</p>	<p>1. Eskolazeari buruz familiei emandako informazioa dela-eta, ikastetxeen jarduteko prozedura berrikusi da. (2017-2018)</p>
<p>2. Ikastetxe batean eskolatzeko eskaerak, ohiko aldian eta matrikula bizian, lurralde mailako informazio-bulegoetatik egiteko aukera baloratzea.</p>	<p>1. Ikastetxe batean eskolatzeko eskaerak lurralde mailako informazio-bulegoetatik egiteko aukera baloratu da. (2017-2020)</p>



2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIOA

2.3. HELBURUA:

Instituzioen arteko koordinazioa indartzea, eskolatzearen eskaerak banakako egoeretara eta egoera kolektiboetara egokitzeke

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Ikasle etorri berriei eta haien familiei eman beharreko erabateko arreta sustatzea, gizarte eta hezkuntza laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzuen ardura duten udal zerbitzuen aldetik.</p>	<p>1. Adin txikikoak era egokian eskolatu ahal izateko, lankidetzan aritzeko protokoloak adostu dira, gizarte-, hezkuntza- eta etorri berriei laguntza eta aholkularitza emateko zerbitzuen ardura duten udal zerbitzuekin.(2017-2020)</p>
<p>2. Ikasle etorkinen lehenetsunezko hezkuntza-premiak identifikatzea.</p>	<p>1. Hezkuntza-baliabideen (eskola-laguntza, laguntza ematea, hizkuntza indartzea, ...) mapa egin da. (2017-2020)</p>
<p>3. Instituzioen arteko koordinazioa, adin txikiko etorkinen familia-ingurunearen prestakuntza-premiak baloratzeko.</p>	<p>1. Prestakuntza jarduerak jarri dira martxan, beste instituzio batzuekin lankidetzan (Gurasoen Eskolak, Helduen Hezkuntza Iraunkorra, helduak prestatzeko ikastaroak...). (2017-2020)</p>
<p>4. Eskola eta ingurunearen arteko harremana indartzea. Horretarako, toki erakundeekin, udal edota mankomunitateetako immigrazio teknikariek eta udalerrian beste jatorri batzuetako pertsonen arreta ematen dieten eta kultura arteko ikuspegia sustatzen duten kolektibo soziokulturalekin koordinazioan aritzeko bideak bultzatuko dira. "Eskola inguruneari irekitzea" eta ikastetxearen jardueretan parte hartzeko moduak bilatuko dira, aniztasunaren balioa susta dezaten gure gizartean.</p>	<p>1.- Orientabideak bidali dira ikastetxeetara, ingurunearekin koordinazioan aritzeko bideak sustatze eta aniztasunari balioa emate aldera.</p>



3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

3.1. HELBURUA:

Plazen eskaintza ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan orekatua izatea

JARDUERA ILDOA

ADIERAZLEAK

<p>1. Plazen planifikazio orekatua egitea ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan, eskola eragin-eremu bakoitzean.</p>	<p>1. Eskolako eragin-eremu bakoitzean ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan eskainitako plazen kopurua aztertu da, planifikazio orekatua lortzeko. (2016-2020)</p>
<p>2. Udalerrietan eskola-kontseiluak sortzeko eta indartzeko ekintzak sustatzea, topagune, eztabaidagune eta beharizanak diagnostikatzeko langune izan daitezen eta administrazio-neurrien segimendua egin dezaten.</p>	<p>1.-Handitu egin da udalerrietan abian diren eskola-kontseiluen kopurua.</p>



3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

3.2. HELBURUA:

Eskola eragin-eremuaren barruan, ikasle etorkinen eskolatzeko inklusiboa eta orekatua sustatzea, sareen artean eta sare bakoitzaren barruan

JARDUERA ILDOA

ADIERAZLEAK

<p>1. Taldeko eskola-plazen % 10, funts publikoen bidez sustengatutako ikastetxeetan ezarritako ratioaren gaintetik, kudeatzea, hezkuntza-administrazioaren eskolatzearren premiei arreta emateko (epea kanpo eskolatzeko diren ikasleak, ...).</p>	<p>1. Taldearen ratioaren gaineko % 10ari dagozkion plazen bidez erantzun zaie hezkuntza administrazioaren eskolatzeko beharrezan. (2016-2020)</p>
<p>2. Eskola eragin-eremu bereko bi ikastetxe publiko bateratzea.</p>	<p>1. Batera daitezkeen ikastetxe publikoen kopurua identifikatu da. (2016-2017)</p> <p>2. Hasiera eman zaio aurreko puntuan aipatutako ikastetxeak bateratzeko prozesuari. (2019-2020)</p>
<p>3. Eskola eragin-eremu bereko bi ikastetxeren ibilbideak inklusibitatearen aldeko irizpideekin aldatzea.</p>	<p>1. Ibilbidea alda diezaiekeen ikastetxe publikoen kopurua identifikatu da. (2016-2017)</p> <p>2. Hasiera eman zaio aurreko puntuan aipatutako ikastetxeren ibilbideak aldatzeko prozesuari. (2019-2020)</p>



4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BALIABIDEAK

4.1. HELBURUA:

Hezkuntza-erantzun egokia eskaintzea eskolako hizkuntzak ezagutzen ez dituzten ikasle etorkinak dituzten ikastetxeen hizkuntza indartzeko premiei

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Ikastetxe publikoetan hizkuntza indartzeko irakasleen plazen esleipena berrikusi eta, behar izanez gero, aldatzea, hizkuntzak ikasteko prozesuan diren ikasle etorkinei lotutako beste aldagai batzuk txertatze aldera.</p>	<p>1. Ikastetxe publikoetan Hizkuntza indartzeko irakasleak esleitzeko irizpideak aldatu dira, hizkuntzak ikasteko prozesuan diren ikasle etorkinei lotutako aldagaiak txertatze aldera.</p>
<p>2. Ikasle etorkinentzako kultura artekotasuna sustatzeko programetarako eta ikasle etorri berrientzako Hizkuntza Indartzeko programetarako diru-laguntzak emateko Agindua berrikusi eta, behar izanez gero, aldatzea.</p>	<p>1. Diru-laguntzak emateko Agindua aldatu da, ikastetxeetako ikasle etorkinen kopuruari lotutako aldagaiak sartzeagatik.</p>
<p>3. Hizkuntza-proiektuetan eta tutoretza-eta errefortzu-planetan, hizkuntza indartzeko programa bukatu duten ikasleen jarraipena egiteko prozesua ezartzea.</p>	<p>1. Hizkuntza indartzeko programa bukatu duten ikasleen % 100ek jarraipen-plan individualizatua izango du hurrengo hiru ikasturteetan.</p>



4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BALIABIDEAK

4.2. HELBURUA:

Hamaika Esku programako ikastetxe publikoetan kultura artekotasuna sustatzeko premiei erantzun egokia ematea

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Besteak beste Kultura artekotasuna sustatzeko eginkizunez arduratzen den figura finkatzea Hamaika Esku programako ikastetxeetan.</p>	<p>1. Hamaika Eskuko ikastetxeen % 100ek dute figura hori.</p>
<p>2. Tutoretzak indartzea (taldekoa, banan banakoa zein familiakoa) aurrera egiten jarraitzeko kultura-artekotasuna sustatzeko lanean.</p>	<p>1. Sartu berri diren ikasleen edo atzerriko familia duten ikasleen ehunekoa batezbestekotik gora duten ikastetxeek tutoretzako ekintza-plan bat garatzen dute, lehentasunezko jarduera-ildo modura lantzeko kultura-artekotasuna.</p>



5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA

5.1. HELBURUA:

Ikasle etorkinei arreta ematen dieten
Hizkuntza Indartzeko irakasleen perfil
profesionala zehaztea

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Hizkuntza indartzeko irakaslearen figura eta sarbiderako baldintzak birdefinitzea, unibertsitate prestakuntza espezifikoari lehentasuna emanez: bigarren hizkuntzen didaktikako masterra (Bigarren Hezkuntza), kultura artekotasunean "Minor" (Lehen Hezkuntza) eta abar, eta hautagaiek lan horietan izan duten esperientzia eta prestakuntza osagarria baloratuz.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza Indartzeko irakaslearen funtzioak eta sarbiderako baldintzak diseinatu eta zabaldu dira. (2016-2017). 2. Hezkuntza alorreko eskumena duen Sailak Hizkuntza Indartzeko irakaslearen habilitazioa eta sarbiderako baldintzak kudeatu ditu. (2017-18). 3. Hizkuntza Indartzeko irakasleen % 35ek unibertsitateko prestakuntza espezifikoa dauka. (2018-2020).
<p>2. Hezkuntza eta Unibertsitate Sailburuordetzen arteko Batzorde Mistoari proposatzea Hizkuntza Indartzeko irakasleen eta kultura arteko dinamizatzaile edo koordinatzaileen figuren prestakuntza espezifikoaren beharrianen azterketa egitea, eta titulazio berriren bat bideratzea, bai Graduoko espezializaziokoa ("Minor" Lehen Hezkuntza), bai bigarren hizkuntzetako masterra.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Sailburuordetzen arteko akordioak burutu dira eta horri buruzko proposamenak egin dira.(2016-17)



5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA

5.2. HELBURUA:

Inklusioarekin lotutako prestakuntza-jarduerak ikastetxeetako zuzendaritza-taldeentzako, irakasleentzako eta familientzako prestakuntza-planetan sartzen jarraitzea

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Irakasleentzako ikuspegi inklusiboarekin eta kultura artekoarekin bat datozen ikastetxe eta gela mailako estrategia metodologikoei buruzko orientabideak egitea eta zabaltzea, eta irakasleei prestakuntza eskaintzea.</p>	<p>1. Orientabideak egin eta ikastetxeen % 100ean hedatu dira. (2017-18) 2. Irakasle guztiei eskaini zaie prestakuntza. (2017-18)</p>
<p>2. Kultura artekotasanari buruzko hausnarketa eta prestakuntza zuzendaritza-taldeak prestatzeko planean sartzea.</p>	<p>1. Berritzeguneetako zonalde mailako mintegien bidez sartu da zuzendaritza-taldeen hasierako prestakuntzan eta etengabeko prestakuntzan (2017-18)</p>
<p>3. "Kultura arteko gaitasuna" ikasle guztien artean garatzeari buruzko jardunaldi bat antolatzea. Jardunaldi hori sailen arteko lankidetzan markoan egingo da, <i>Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen integrazioarako eta parte-hartzerako Foroko</i> kideek lagunduko dute eta Eskola Komunitate guztiarentzat, zuzendaritza-taldeentzat batez ere, egongo da irekita.</p>	<p>1. Hezkuntza komunitatearen eta instituzioen parte-hartzearekin jardunaldia antolatu da. (2019-20)</p>
<p>4. Praktika onak selekzionatu eta hedatzea familiei prestakuntza eman eta haiek parte hartzeko prozesuan.</p>	<p>1. Arrakasta duten praktikak selekzionatu dira. (2016-17) 2. Ikastetxe eta guraso elkarte guztiei helarazi zaizkie. (2017-18)</p>
<p>5. Arrakasta duten praktikak inplementatzea familiei prestakuntza eman eta ikastetxean parte hartzeko prozesuan. Eratatiko sareetatik (Ikas Komunitateak, Hamaika Esku ...) hasiko da eta neurri horiek guraso elkartei diru-laguntzak emateko aginduekin izango dute lotura.</p>	<p>1. Ikas Komunitateetako eta Hamaika Eskuko ikastetxeen % 100ean neurriak inplementatu dira. (2018-19) 2. Guraso elkartei diru-laguntzak emateko Aginduan familien prestakuntza eta parte-hartzea irizpide bezala sartu da diru-laguntza jasotzeko.(2017-18).</p>



5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: PRESTAKUNTZA ETA IKERKETA

5.3. HELBURUA:

Azterketa, analisi eta txostenak egiten jarraitzea, ikasle etorkinekin egin beharreko hezkuntza politika eta praktikak orientatzen laguntzeko, apur-apurka eskolan gero eta arrakasta handiagoa izatea lortze aldera

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

<p>1. Gure hezkuntza-sisteman 6 urte baino gutxiago eskolatuta egon diren ikasleen kasuan, "Ebaluazioa-kalifikazioa-hurrengo kurtsora pasatzea" gaia lantzeko erari buruzko azterketa ISEI-IVEIrekin, Ikuskaritzarekin eta Berritzeguneeekin lankidetzan.</p>	<p>1. Hamaika Esku programako lantaldeak, ISEI-IVEIk, Ikuskaritzak eta Berritzeguneeek osatuak, analizatu ditu txosten, azterketa eta ikerketak. (2017-18)</p>
<p>2. Jardunbideak ematea, errepikatzeen indizea minimizatzen ikasleen irteera-profila lortzeko marjina txikia duten ikastetxeetan.</p>	<p>1. Ikasleen irteera-profila lortzeko marjina txikia duten ikastetxeen ebaluazioa egin da (horien artean Hamaika Eskuko ikastetxeak), errepikatzeen indizea murrizteko irizpideak aintzat hartuta.</p>
<p>3. Txostenak eratzeko prozesuan aurrera jarraitzea, ikasle "etorkinen" emaitza akademikoak eta ikasle horiek integratzeko prozesua lantzeko, barnean hartuta familia migratuen seme-alaben emaitzak, baita ikastetxeetan inplementatutako hizkuntz errefortzuko neurrien arrakasta ere.</p>	<p>1. Diagnostiko-ebaluazioei buruzko txostenak egin dira, eta datu esanguratsuak atera daitezke txosten horietatik, ikasle etorkinen emaitza akademikoak hobetzen laguntzeko (2018-19).</p>
<p>4. Lantalde mistoak sortu dira hainbat eragilerekin (unibertsitateak, eragile soziokulturalak, hezkuntza-administrazioko zerbitzuak, jatorri askotako adituak, familiak...), kultura-aniztasunari eta hezkuntza-munduari lotutako gai sakonak edo gatazkak aztertzeko eta beroriei buruzko proposamenak aurkezteko: ikasleak eskolatu eta banatzeko prozesua, elkarbizitza-arauak ikastetxean, ikasle guztiek eskola-arrakasta izatea, euskara eta immigrazioa, eskola eta ingurunea, pertsona immigratuen seme-alabak, erlijio-praktikak eta eskola, eta abar</p>	<p>1. Talde misto bat eratu da eta landu beharreko gaiak erabaki dira. (2016-17)</p> <p>2. Jarduteko proposamenak, Hezkuntza Sailburuordetzan oinarrituak, jaso dira. (2016-17).</p>



6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: PLANAK ETA PROGRAMAK

6.1. HELBURUA:

Ikasle etorkinekin esku hartzeko programa espezifikoak aurrera eraman eta estandarizatzea

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

1. Norbanako Jarduera Plana berrikusi eta gaurkotzea, ikasle etorri berriei begira.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Norbanako jarduera plana egin eta gaurkotu da. (2016-17) 2. Proposamena ikastetxe guztiei bidali zaie. (2016-17)
2. Ikastetxeen aldetik planak, proiektuak eta protokoloak berrikustea.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikastetxeek harrera-protokoloa, elkarbizitza-plana eta abar berrikusi dituzte, EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren 2. ildo estrategikoan definitutako oinarritzko printzipioak kontuan hartuta. (2016-2017)
3. Etorri berriak diren ikasleei edo atzerriko jatorria duten familietako ikasleei hezkuntza-laguntza emateko premia zehatzak goiz hautematea eta artatzea.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Premiak goiz hautemateko eta artatzeko protokoloa gehitu da ikasle horiei ezartzen zaien harrera-planean
4. Helduen Hezkuntzaren arloan berariazko esku-hartzea sustatzeko programak garatzea, ikasle etorkinak gizarteratzen laguntzeko.	<ol style="list-style-type: none"> 1. Handitu egin da ziurtatze-maila HHEn jatorriz atzerritarrak diren ikasleen artean. 2.- Ikasle horiek gizarteratzeko proiektuen garapena sustatu da HHEko zentroetan 3. Derrigorrezko Hezkuntzan diharduten ikasle etorkinen familientzako prestakuntza-ekintzak jarri dira abian.



6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: PLANAK ETA PROGRAMAK

6.2. HELBURUA:

Toki erakundeekin, elkarteekin eta gizarte-eragileekin sarean lan egitea, ingurunera irekita egongo diren kultura arteko proiektuak aurrera eramateko orduan

JARDUERA ILDOAK

ADIERAZLEAK

1. Ikasle guztientzako ekimenak sustatzea, erkidegoan dauden hizkuntzak eta kulturak lantzeko xedez, prestakuntza-eskaintza zabaltzeko erak bilatuta (tailerrak antolatuz, proiektuen bidez...) irabazi asmorik gabeko erakundeekin lankidetzan eta instituzioen arteko lankidetzan areagotuz.	1. Ekimen mota horiei eta ikasleei eta, oro har, ikastetxeei dakarzkieten abantailei buruzko informazioa bidali zaie ikastetxe guztiei. (2016-17) 2. Ikastetxeen praktika onak zabaldu dira Erkidegoan dauden beste hizkuntza eta kultura batzuk lantzeko. (2016-2020)
2. Hamaika Esku eta Ikas Komunitateak programetan parte hartzen duten ikastetxeen sareko lana sustatzea.	1. Eragile desberdinek sarean lan egiteko prozesua sustatu da Hamaika Esku eta Ikas Komunitateak bezalako programetan. (2016-2020)
3. Sailen arteko lankidetzan, koordinazioa eta lana indartzea.	1. Zenbait programa egin dira, beste sail batzuekin batera: Enplegua eta Gizarte Gaiak, Lehendakaritza, Segurtasuna, Osasuna eta abar (2016-2020).
4. Hezkuntza Sailaren eta tokiko erakunde eta eragileen arteko zeharkako lana sustatzea.	1. Hainbat erakunde eta eragilerekin lankidetzan aritzeko programak garatu dira
5.- Euskal unibertsitate-sistemaren unibertsitateekin lankidetzan aritzeko lanak sustatzea, irakasleen hasierako prestakuntza eredu pedagogikoaren esparruko ildo estrategikoetara egokitzeko (aniztasunari arreta egiten dion hezkuntza inklusiboaren ildora, besteak beste)	1.-Eredu pedagogikoaren esparruko ildo estrategikoekin bat datozen neurriak hartu dira.



2.8. PLANAREN JARRAIPENA EGITEKO ETA BERRIKUSTEKO BATZORDEA

Planaren jarraipena egitea eta aldiro berrikustea prozesu desberdinak dira baina koordinatuak. Jarraipenari esker, informazioa jaso daiteke, adierazleen bitartez, planaren helburuen betetze-mailari buruz, ekintzak burutzeko erabilitako baliabideei buruz eta planaren ezarpen-aldian antzemandako gorabeherari buruz. Plana indarrean dagoen bitartean aldiro berrikustekak, berriz, unitatearen eta erakundearen aldaketa eta beharrianetara egokitzea du helburu.

Horretarako, planaren jarraipena egin eta garatzeko organoak ezarri dira, honako era honetan:

- Ikasle Etorकिन Hezkuntza Arretarako 2016-2020 Planaren Jarraipenerako eta Garapenerako Batzordea
- Ikasle Etorकिन Hezkuntza Arretarako 2016-2020 Planaren Jarraipenerako bi batzorde tekniko:
 - Araudi, informazio eta planifikazioari buruzko batzorde teknikoa
 - Prestakuntza eta hezkuntza berriztatzeko plan eta programei buruzko batzorde teknikoa

52

Ikasle Etorकिन Hezkuntza Arretarako 2016-2020 Planaren Jarraipenerako eta Garapenerako Batzordea

Batzorde honetako kideak honako hauek izango dira:

- Batzordeburua: Hezkuntza alorreko eskumena duen Sailaren Hezkuntza Sailburuordea.
- Batzordekideak: Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria, Ikastetxeen Zuzendaria, Saileko Lurralde ordezkariak eta Immigrazio alorreko eskumena duen zuzendaria. Batzordeburuak erabakiko du alorrean adituak direnen parte-hartzea, jarraipena ahalik eta ondoen egiteko.
- Idazkaritzaren lanak Hezkuntza Sailburuordetzako hitza duen eta botorik ez duen funtzionario batek beteko ditu, esan-eginak eta, kasua balitz, hartutako erabakiak jasota uzteko.



Ikasle Etorकिन Hezkuntza Arretarako 2016-2020 Planaren Jarraipenerako eta Garapenerako Batzordearen egitekoak honako hauek izango dira:

- Plana abian jartzen dela eta garatzen dela bermatzea.
- Esku hartzeko eta ebaluatzeko estrategiak ezartzea.
- Planaren garapenean parte hartzen duten batzorde teknikoaren proposamenak jasotzea.

Planaren Jarraipenerako eta Garapenerako Batzordea gutxienez sei hilabeterik behin batzartutako da.

Ikasle Etorकिन Hezkuntza Arretarako 2016-2020 Planaren Jarraipenerako batzorde teknikoak

Jarraipenerako batzorde teknikoaren egitekoak honako hauek izango dira:

- Batzordearen eskumenen esparruan egin beharreko lan zehatzen zerrenda egitea.
- Planeko ekintzak haren eskumenen esparruan ezartzeko erraztasunak eskaintzea.
- Planaren ekintzak burutzeko ardura dutenekin harremanak erraztea, Planaren helburuak beteko direla bermatzeko, prozedurak berreginez zein kudeatzen duten unitateekin komunikazioa bermatzeko planaren bidez.
- Jarraipen eta Garapen Batzordearen aurrera eramatea, hiru hileroko txostenaren bidez, beharizanen eta itxaropenen berri eta haren eskumeneko esparruetako ekintzen jarraipenari buruzko informazioa.

Batzorde hauek gutxienez hiru hilabeterik behin batzartuko dira.

Araudi, informazio eta planifikazioari buruzko batzorde teknikoa

Batzorde honetako kideak honako hauek izango dira:

- Batzordeburua: Ikastetxeen zuzendaria.
- Batzordekideak: hiru ordezkari izango dira Ikastetxeen Zerbitzuko lurralde ordezkariak, Ikastetxeen Zerbitzu Zentraleko bi teknikari, Immigrazio alorrean eskumena duen Zuzendaritako abokatua eta IKUSPEGI Immigrazioaren Euskal Behatokiko pertsonaren bat. Batzordeburuak erabakiko du alorrean adituak direnen parte-hartzea, jarraipena ahalik eta ondoen egiteko.
- Idazkaritzaren lanak Ikastetxeen Zuzendaritzako hitza duen eta botorik ez duen funtzionario batek beteko ditu, esan-eginak eta, kasua balitz, hartutako erabakiak jasota uzteko.



Prestakuntza eta hezkuntza berriztatzeko plan eta programei buruzko batzorde teknikoa

Batzorde honetako kideak honako hauek izango dira:

- Batzordeburua: Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.
- Batzordekideak: hiru ordezkari izango ditu Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzuko lurralde ordezkariak, Hezkuntza Berriztatzeko Zerbitzu Zentraleko bi teknikari, Immigrazio alorrean eskumena duen Zuzendaritako teknikaria eta *Biltzen* Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuko pertsonaren bat. Batzordeburuak erabakiko du alorrean adituak direnen parte-hartzea, jarraipena ahalik eta ondoen egiteko.
- Idazkaritzaren lanak Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako hitza duen eta botorik ez duen funtzionario batek beteko ditu, esan-eginak eta, kasua balitz, hartutako erabakiak jasota uzteko.



2.9. KRONOGRAMA

		LORPEN ADIERAZLEAK			
		2016-17	2017-18	2018-19	2019-20
1. ARDATZA					
	1.1 HELBURUA				
		1. JARDUERA			
		2. JARDUERA			
		3. JARDUERA			
		4. JARDUERA			
	1.2 HELBURUA				
		1. JARDUERA			
		2. JARDUERA			
	1.3 HELBURUA				
		1. JARDUERA			
		2. JARDUERA			
		3. JARDUERA			
	2. ARDATZA				
		2.1 HELBURUA			
			1. JARDUERA		
ACCIÓN 2					



		3. JARDUERA				
		4. JARDUERA				
	2.2. HELBURUA					
		1. JARDUERA				
		2. JARDUERA				
	2.3 HELBURUA	3. JARDUERA				
		1. JARDUERA				
		2. JARDUERA				
		3. JARDUERA				
		4. JARDUERA				

LORPEN ADIERAZLEAK

			2016-17	2017-18	2018-19	2019-20
3. ARDATZA						
	3.1 HELBURUA					
		1. JARDUERA				
	3.2 HELBURUA					
		1. JARDUERA				
		2. JARDUERA				
		3. JARDUERA				
4. ARDATZA						
4.1 HELBURUA						
	1. JARDUERA					
	2. JARDUERA					
	3. JARDUERA					
4.2 HELBURUA						
	1. JARDUERA					



LORPEN ADIERAZLEAK

		2016-17	2017-18	2018-19	2019-20
5. ARDATZA					
	5.1. HELBURUA				
	1. JARDUERA				
	2. JARDUERA				
	5.2 HELBURUA				
	1. JARDUERA				
	2. JARDUERA				
3. JARDUERA					
4. JARDUERA					
5. JARDUERA					
5.3 HELBURUA					
1. JARDUERA					
2. JARDUERA					
3. JARDUERA					
4. JARDUERA					



6. ARDATZA							
6.1 HELBURUA	1. JARDUERA						
	2. JARDUERA						
	6.2 HELBURUA	1. JARDUERA					
2. JARDUERA							
3. JARDUERA							
4. JARDUERA							